

Kultura

Mariano Estudillo aktore durangarrak antzerkitik telebistarako saltoa egin du > 11



Trenbide zaharraren azpiegitura eta Durangoko trenen garajeak kentzeari ekingo diote aurten

Jaurlaritzak lehiaketara atera du Santa Apoloniatik Matienarako trenbidea eta Durangoko trenen garajeak kentzeko obra

Eusko Jaurlaritzak lehiaketara atera du Iurretako Santa Apolonia auzotik Abadiñoako Traña-Matienarako tartean trenbide zaharra kentzeko obra. Trenbidea eta elektrizitate sarea kentzeak milioi bat euroko gastua izango du. Gainera, Durangoko

trenen garajeak ere kentzea aurreikusten du proiektuak, eta 550.000 euroko diru atala bideratuko dute obra horretara. Urtea amaitu orduko ekingo diete lanei. Horrela, 62.000 metro koadro erabilgarri geldituko dira Durango erdigunean. > 4



Beharrian berriei erantzun berriak

Bizkaiko Elikagai Bankuko janaria banatzeko, ekimen berri bi jarri dituzte martxan Zornotzan eta Elorrian > 2-3

Lehior Elorriaga.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA



Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - Iurreta
www.zarateyexpe.com

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 946 818 792
48200 Abadiño

Durangaldea > 4

Gizarte larrialdietarako laguntzetara 105.000 euro gehiago bideratu dituzte

Iurreta > 8

Iurretako kanposantua hilerrien lehiaketa bateko finalista da

Zornotza > 3

Pilotaleku eraberrituagaz hasiko dituzte jaiak Euba auzoan

Durango > 9

Eskolarako materiala erosteko finantziaioa emango du udalak

Herririk herri

Acción Social Amorebietako kide batzuk Etxe Gorri izeneko eraikinearen sarreran. Lehior Elorriaga.

Acción Social Amorebieta, beharrizanean dauden familiei laguntza ematen

Elikagai bankuaren eta herritarren arteko zubi lana egiten du Acción Social Amorebietak

Elkartea apirilean sortu zuten, eta hilero Zornotzako 50 bat familiari laguntzen diote

DURANGALDEA J. Derteano Beharrizanean dauden familiei laguntzeko Zornotzan elikagaien bilketa eta banaketa koordinatzen duen elkarte da Acción Social Amorebieta (ASA). Apirilean sortu zuten Zornotzako hainbat norbanakok. Lau hilabete joan dira harrezkero, eta antolatzaileak gustura daude orain arteko erantzunagaz. Herriko 50 familia ingururi laguntzen diete hilero, eta elikagaiak batzeko deialdiak egiterako orduan herritarrek emandako erantzuna azpimarratu dute.

Elikagai iraunkorrak batzeko hainbat ekimen egin izan dira Zornotzan azken urteotan, eta horiek Bizkaiko Elikagai Bankura (BEB) zuzendu dira. Ondoren, Bizkaiko Elikagai Bankuak herririk herri sortuta dauden elkarten laguntza behar izaten du banaketa egiteko, ez duelako herri guztietara heltzeko baliabiderik. Esaterako, Durangon JAED elkartearen bidez egiten dute banaketa.

Zornotzan zegoen gabezia hori bete gura izan dute elkarreagaz.

Larreko karmeldarren jabetzakoa den Etxe Gorrian dute lokala. Lokala bilatzen zein elkarte sortzen aita Felipek asko lagundu diela esan dute. BEBtik hilean behin jasotzen duten elikagai kantitateaz gainera, herrian janaria batzeko deialdiak egiten dituzte: "Herritarren erantzuna itzela da", adierazi du Ianire Cutillas ASako kideak: "Batuetan kalean geldiarazten gaituzte laguntzeko zer egin behar den galdetzeko". Elkarteko kideak astean hirtan egoten dira Etxe Gorrian:


50
familiarri laguntzen diete Acción Social Amorebietaren bidez

astelehenetan eta eguaztenetan, 10:00etatik 12:00etara, eta eguenean, 14:00etatik 16:00etara. Gainera, herriko hainbat establezimenduk elikagai bilketan laguntzen diete: janaria ematen diete (Boroa eta Propi jatetxeek, esaterako) eta janaria batzeko guneak eskaintzen dizkiete (La Viña tabernak, Maran kirol-dendak eta Garamendi arrandegiak, esate baterako).

Baina laguntza jaso ahal izateko, bete beharreko baldintza batzuk daude: familiak hilero duen diru-sarrera kontuan hartzen da, eta Zornotzan erroldatuta egotea nahitaezkoa da, adibidez. Hilero bako bakoan antolatzerako orduan meen beharrak asetzeari "arreta berezia" ipintzen dio ASAk: esnea, haur-oihalak... Esaterako, hilean 600 litro esne behar izaten dituzte, eta, oraingoz behintzat, kantitate hori batu izan dute. Beraz, aldikako bilketa horiek BEBtik jasotzen duten kopurua osatzeko balio izaten du.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko irailaren 5a,
12. urtea - 556. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:

Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:

Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri eta Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:

Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

Sare sozialen bidez, duenak ez duenari laguntzeko

DURANGALDEA J.D.

Acción Social Amorebieta elkarteak dabilten kide batzuek beste ekimen solidario bat ere garatzen dute: Zornotza Comparte. Helburua bera da: duenaren eta ez duenaren arteko zubi lana egitea. Kasu honetan familiei sortzen zaizkien behar materialak (altzariak, adibidez) asetzea da xedea. Zubi hori izen bera duen Facebookeko orrialde baten bidez egiten dute.

Sare sozialetako orrialdea sortu zutenetik hamabi bat familiarik laguntzeko aukera izan dute. Haurrentzako sehaskak, arropa, garbigailuak, haurren logelak janzteko altzariak... Funtzionatzeko modua erraza da. Familiaren batek eskaera egiten dienean, euren Facebook orrialdean ematen dute horren berri, eta, ondoren, herritarrek eurekin hartu-emanetan jartzen dira. ASaren deialdien berri emateko ere badarabilte Facebook orrialdea.

Kainabera, Udala eta Eroski batu dira Elorrion banaketarako

Iaz hasi ziren lehenengo pausoak ematen; aurten ekimena sendotu dute



Ekimenaren bultzatzaileak, eguaztenean, hitzarmena sinatzeko ekitaldian.

DURANGALDEA M.O.

Elorrion ere familia behartsuen aldeko elkartasuna antolatu dute. Iaz hasi ziren lehenengo pausoak ematen, zarata handirik egin barik. Elikagai Bankukoek udalari jakinarazi zioten Elorrioko hainbat familia Basaurin dagoen biltegiara joaten

direla, eta, horren ondorioz, herrian bertan zerbitzua zelan eskaini aztertzen hasi ziren. Udalak Kainabera gobernu kanpoko erakundeari elkarrekin lan egitea proposatu zion, eta GKEak baiezkua eman zion.

Udalak lokal bat prestatu du Galartzauria kaleko 1 zen-

bakian, Lourdes ikastetxerako bidean. Bertan batzen dituzte janaria eta produktuak, eta banatu ere han egiten dituzte beharra daukaten familien artean. Herritar horiek, horren aurretik, udaletxera jo behar izaten dute laguntza eske, gizarte zerbitzuetan kudeatzen delako

gaia. Horrela, zerrendak egin, eta Kainaberakoek badakite nor etorriko den produktuen bila.

Elkartasun ekimena sendotu egingo da aurten, Eroski Fundazioak ere lagunduko du eta. Hitzarmena eguaztenean sinatu zuten, eta ekimena publiko egiteko aprobetxatu zuten.

Udalak lokal bat prestatu du Galartzauria kaleko 1 zenbakian, Lourdes ikastetxerako bidean

Eroskik 6.000 euro ipiniko ditu, eta, modu horretan, beste hainbat produktu erosi ahalko dituzte Kainaberakoek. Elikagai Bankutik datozen sortak osatu eta hobetuko dituzte, beraz. Hitzarmenak urtebeteko iraupena edukiko du.

Lankidetz

Ana Otadui alkateak esker hitzak izan zituen hitzarmena sinatu ostean: "Eroski Fundazioaren eta udalaren borondate ona ez litzateke ezertarako izango Kainabera elkartearen lan izugarriaren laguntzarik barik". Guztiek batera, krisiak gehien kaltetutako herritarrei emango diete laguntza.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

MATRIKULA ZAITEZ

Fabrikazio Mekanikoko Produzioen Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Sistema elektrotekniko eta automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren hornizioaz arduratzen dira



www.mondragon.edu/gmh

Lanerako Gertu!

Trenbide zaharra eta garajeak kentzen hasiko dira aurten

Eusko Jaurlaritzak lehiaketara atera du trenbidea eta garajeak kentzeko obra



Trenbide zaharra eta garajeak kendu barik daude oraindik Durangon.

DURANGALDEA M. Onaindia Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuak eman du berria. Urtea amaitu aurretik hasiko dira kentzen trenbide zaharra, baita trenen Durangoko tailerra eta garajeak ere. 2012ko abendutik tren lurpetik doa, eta funtzio bako azpiegitura kenduta, espazio hori libre geratuko da Iurretako Santa Apoloniatik Traña-Matienara. Gainera, Durangoko herrigunea batu egingo da.

Eusko Jaurlaritzak lehiaketara atera du obra, eta udal

arduradunek uste dute aurten hasiko direla lanean. Trenbidea eta elektrizitate sarea kentzeak milioi bat euroko gastua dakar, eta bost hil dituzte amaitzeko. Tailerra eta garajeak botatzeko 550.000 euroko aurrekontua dute; hiru hilean gauzatu da.

Garajeak kenduta, *Durango Operazioa* aurrera doa. Baina egitasmoa aldatu egin da hasierako planetik. 62.000 metro karratuko eremuan luxuzko bost etxe dorre, Eusko Trenbide Sarearen egoitza berria, eliza bat eta aisialdirako gunea aurrei-

kusi zituzten. 2010ean ETSren egoitza ez egitea erabaki zen, eta etxeak egingo diren ere ez dago argi, krisiarengatik. Eliza ere ez da egingo, udalbatzak hori erabaki zuelako iaz. Aisialdi gunerako 37.000 metro karratu daude, eta skate gunea, anfiteatroa eta parkea –Bildu eta Aralarren proposamenak– barneratu dira proiektuan.

Bestalde, udalak ikasleen iritzia batu zuen geltokitik Landakorainoko trenbidean zer egin aztertzeko, eta parke lineal bat egitea proposatu zuten.

Gizarte larrialdietarako 105.000 euro gehiago

Amankomunazgoak laguntza kopurua handitu du

DURANGALDEA J.G. Durangaldeko Amankomunazgoak prentsa oharrean jakinarazi duenez, gizarte larrialdietarako laguntzei aurre egiteko 105.000 euro onartu berri ditu: “Aurten, gainontzeko urteetan bezala, arauak bete dituzten eskaerak onartu dira, eta, beraz, laguntza eman zaie”.

Eusko Jaurlaritzak baliabiderik gabe dauden herritarren artean banatzeko 406.018 euroko diru atala utzi du Amankomunazgoaren esku, iaz baino %16 gehiago. Izan ere, Amankomunazgoaren gizarte zerbitzuek hamar herritan kudeatzen dituzte laguntza horiek: Abadiñon, Atxondon, Durangon, Elorrion, Garain, Iurretan,

Izurtzan, Mañarian, Otxandion eta Zaldibarren.

Laguntzen aurrekontuaren %69 bideratu dute urtearen lehen sei hileetan. “Hori dela-eta, Amankomunazgoak egoki ikusi du diru kopuru hori gehitzea, laguntza behar duenari emateko”.

Amankomunazgoko ordezkariak azaldu dutenez, 105.000 euro gehiago onartuko dituzte irailean, eta kopuru hori soberakinetik bideratuko dute. Guztira, aurten 511.014,43 euro banatuko dituzte. Iaz Amankomunazgoak 451.550,30 euroko aurrekontua izan zuela kontuan hartuta, aurten iaz baino %13,17 gehiago izango du diru-laguntzetan banatzeko.



Amankomunazgoaren gizarte zerbitzuek kudeatzen dute laguntza hau.

Auzoko jaiak ospatzeko, gaurko, biharko eta etziko egitaraua, Muntzaratzen

Gaur, 19:00etan altxatuko dute jaietako Donien Atxa

ABADIÑO Itsaso Esteban Asteburu honetarako antolatu ditu Muntzarazko auzo elkarteak, udalaren babesagaz, auzoko jaietako egitarauko ekitaldi gehienak. Gaur, 19:00etan

ipiniko dute Donien Atxa, eta umeen dantza saioaren, paella eta tortilla lehiaketen, eta parri-ladaren ostean, 21:30ean hasiko den Xaibor DJagaz emango dute lehenengo eguna amaitutzat.

Bihar eta etzi goizetik nabarituriko da jai giroa Muntzaratzen. Izan ere, Mozorro Eguna ospatuko dute, esaterako, bihar. Buruhandiek esnaraziko dute auzoa, eta, ohiturazko argazkia eginda, 11:45ean emango diote mozorro lehiaketari hasiera. Arratsaldean, helduak kartajokoan eta umeak tailerretan ariko dira, esate baterako.

Irailearen 7an ere egun osoko egitarauaz gozatzeko aukera izango dute adin guztietako auzokideek eta bisitariek.

2013-2014 ikasturteko euskara ikasleei diru-laguntza

ZALDIBAR I.E. Joan den ikasturtean euskara ikasten jardun ziren zaldibartarrek urriaren 15era arte aurkeztu dezakete udalaren diru-laguntza jasotzeko eskaria. Helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari “oso ga-

rrantzitsu” irizten dio udalak, eta udal aurrekontuko 5.000 euroko atala gordeta du, euskara ikasten jardundako herritarren artean banatzeko.

Joan den ikasturtean, udal euskaltegietan zein pribatuetan, eta barnetegi homologatuetan ikasi zutenek aurkeztu ahaliko dute eskaria udaletzeko Erregistro Orokorrean. Diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, %80ko asistentzia izan duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du ikasleak.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

<p>HELDUENTZAT GERRA TXIRIA Lander Garro (2014)</p>	<p>UME ETA GAZTEENTZAT AURRETIK, ONDOREN A.M. Ramstein & M. Arequi (2014)</p>	<p>MUSIKA LES VOIX BASQUES Anne Etchegoyen & Le Chœur Aizkoa (2013)</p>
--	--	--

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



Euskal
Baserriko
Arrautza
Huevo de Caserío
Vasco

Euskal Baserriko Arrautza

Euskal Baserriko Arrautza izeneko baserriko arrautzak gure baserriarrek ongizate handi-eko baldintzetan, garapen orekatuan eta kanpoko hazkuntza sistemaren bidez hazitako oiloek jarritakoak dira.

Elikadura on batek kalitatezko produktua ziurtatzen du. Horregatik, arrautzetarako gure oiloen dietan zerealak erabiltzen dira nagusiki, %50 baino gehiago artoa izanik. Ezaugarri horiei kalitate-kontrola, azkar banatzea eta egiten duten ibilbi-

dea gehitu behar zaizkie, horregatik dira arrautza onak eta naturalak, zapore oso onekoak eta guztiz elikatzaileak.

Horrela identifikatzen da

Produktu hau zigiluz ongi itxitako ontzietan saltzen da. Ontziak Euskal Baserriko Arrautzaren logotipoa darama, Eusko Labelaren zigiluarekin, eta benetakoak direla ziurtatzen da.



Euskal
Okela
Carne de Vacuno
del País Vasco

Euskal Okela



Eusko Labelaren ezaugarriarekin adierazitako abelgorri okela da Euskal Okela, eta hori arautzen duen Arautegi Teknikoaren jatorri, osasungarritasun eta kalitate baldintza guztiak betetzen ditu.

Euskadiko baserriean kontu handienaz hazitako animalien okela da; beren bizitzako urrats guztietan egon dira kontrolaturik, eta baimendutako hiltegietan beren kalitateagatik hautatuak izan dira.

Euskal Okela, Eusko Labela izateaz gain, Adierazpen Geografiko Babestu bat ere bada (AGB); Europako zigilu horrek jatorri geografikoarekin zerikusia duten ezaugarriengatik kalitate bereziko produktuak babesten ditu.

Horrela identifikatzen da

Euskal Okela baimendutako harategietan bakarrik saltzen da; harategiok erraz ezagutuko dituzu Eusko Labelaren ezaugarriengatik. Horietan, balantza berezi batetik ateratzen den etiketa itsagarri bat emango diote kontsumitzaileari Euskal Okela erosten duen bakoitzean: etiketa horretan eragiketaren datu guztiak azalduko dira eta Eusko Labelaren ezaugarria izango du. Webgunearen bidez: www.euskolabel.net trazabilitatea ezagutu ahal izango da jatorriraino.

Egin zaitez Anbotoren lagun!

ANBOTO astekariaren aldeko konpromisoa adierazten dute ehunka irakurlek urtero *Anbotoren lagun* eginda. Astekaria, barikuetan, Durangaldeko postontzietan doan banatzen den arren, badago babes ekonomikoa emateko aukera ere, urtean 20 euro ordainduta. ANBOTO 2002an sortu zen, Durangaldeko euskara elkarteek ekimenez. Doan banatuko zela jakitun, bazeuden babes ekonomikoa emateko prest agertu ziren hainbat euskaltzale, eta *Anbotoren lagun* figura sortu zuten. Zailtasun ekonomikoei aurre egiteko diru iturri garrantzitsua da ANBOTOrentzat. Lagun

-talde horri eskerrak emateko sasoia dela iritzita, kanpaina berria abiatu dugu. Lehendik lagun direnek zuzenean Eusko Label produktuen otzara baten zozketan parte hartuko dute. Gainerakoek, *Anbotoren lagun* egiteko aukera dute. Orrialde honen behealdean dagoen kupioia bete, eta Bixente Kapanagako 9ra (Iurreta) bidali, anboto@anboto.org helbidera idatzi, edo 946 816 558 telefono zenbakira deitzez aukera duzu; ANBOTOri babes emateaz batera, otzararen zozketan parte hartuko duzu.

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!
Lagun egiteko 3 aukera dituzu

@	anboto@ anboto.org	☎	946 816 558	✉	Izen-deiturak Helbidea Herria Posta kodea Telefona Anboto komunikabideak - DHK Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
---	-----------------------	---	-------------------	---	--



Anbotoren lagunen
artean Eusko Label
produktuen otzarak
zozkatuko ditugu

anboto
Lagunak

hazi
LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO

anboto

Ferixa Nausikoak hasiko dira gaur, hamar eguneko jai luzeagaz gozatzeko

Aukeren Azoka eta Gazte Eguna dira gaurko eskaintza nagusiak; bihar hasiko da jaia ofizialki

ELORRIO Markel Onaindia
Prest daude zapiak, mozorroak, kuadrilletako kamisetak... Ofizialki bihar hasiko dira Ferixa Nausikoak, baina gaurtik aurrera festa giroan murgilduko dira elorriarrak. Hamar eguneko jai luzea dute aurretik.

Aukeren Azoka eta Gazte Eguna dira gaurko eskaintza nagusiak. Egun osoan egongo da azoka, eta, nobedade lez, postu batean trukea egin ahalko da. Gazteak, bestalde, bazkaritara batuko dira txosnagunean. Gainera, tailerrak egiteko aukera ere edukiko dute. Gauzez musika etorriko da txosnagunera; 23:00etan Elorrioko Pixontxis taldeak kontzertua eskainiko du, eta, ostean, South Central DJ ingelesak igoko dira agertokira. Bihar, urtero lez, udaletxe

aurrean elkartuko dira herri-tarrak jaiari hasiera ofiziala emateko. 20:00etan ipini dute hitzordua, eta Gazetako kofradiakoak izango dira txupinazoa

Bihar, urtero lez, udaletxe aurrean elkartuko dira herri-tarrak jaiari hasiera ofiziala emateko

botatzeko arduradunak. Izan ere, 400 urte dira auzotarrak kofradian batu zirenetik. Jaiak lehertu ondoren, zita garrantzitsua izango da 23:00etan, ohiko danborrada izango dute eta. Umeen danborradaren txanda, oster, etzi izango da, 19:00etan.



Iazko Ferixa Nausikoetan hartutako irudi bat.

Hain zuzen ere, etzi ospatuko da jaiari izena ematen dion ekimena, feria. 10:00etatik aurrera abereen eta nekazaritza produktuen erakusketa eskainiko dute Aldatsekuan, eta, herri-tarrez gainera, inguru-etako baserri-tar

eta feriazale ugari batuko ditu segurutik.

Izenaz aparte, izana ere badaukate Elorrioko jaiak. Herri-tarren parte-hartzea da festaren esentzia nagusia, eta astelehenean igarriko da hori Kuadri-

llen Egunean. Lagunak eta gastronomia, hurrengo zapatuko Sukalki Egunean agertuko den jairako errezeta berbera.

Prest daude elorriarrak, berdin mahai bueltan zein kalean, euren herriko jaiaz gozatzeko.

Udalak 2.700 metro karratuko lur eraikigarri bat ipini du enkantean

Zenitako lurzati bat salduko du enkante bidez; 197.000 eurokoa da hasierako prezioa

ELORRIO M.O.
Zenita auzoko 2.700 metro karratuko lurzati eraikigarri bat salduko du udalak enkante bidez. Prentsa ohar batez eman dute salmentaren berri. Dagoeneko apustu egin ahal da lurzatiarengatik, eta 197.000 eurokoa da hasierako prezioa.

Enkantean parte hartu gura dutenek 3.900 euro ipini behar dute berme lez. Enkantearen hasierako prezioaren %2 da kopuru hori.

Hilaren 30era arte

Zenitako lurzatiarengatik per-

tsonek zein erakundeek egin ahal dute apustu, eta, horretarako, irailaren 30era arte egongo da aukera. Egun horretan,



Udalak salgai jarri duen Zenitako lur eremua.

14:00etan amaituko da enkantean parte hartzeko epea, azaldu dutenez. Diru gehien eskaintzen duenak lortuko du lurzati.

Ludotekan izena emateko deialdia egin du udalak

Hilaren 19ra arte dago inskripzioa egiteko aukera

ELORRIO M.O.

Udalak ikasturte honetan ere Ludoteka zabalduko du, eta bertan parte hartzeko izen-ematea hasi berri da. Interesdunek irailaren 19ra arte dute inskripzioa egiteko aukera udaletxeko Erregistro Orokorrean. 3 eta 8 urte arteko umeei zuzenduta dago. Elorriarrez gainera, herri-ian ikasten duten kanpotarrek ere eman dezakete izena. Urteko inskripzioa 95 eurokoa da; abendutik aurrera 80koa, eta martxotik aurrera 60koa.

Irailaren 29tik ekainaren 19ra bitartean eskainiko dute

zerbitzua, astelehenetik barikura, eta 17:00etatik 19:45era. Ludotekak hainbat helburu ditu:

Irailaren 29tik ekainaren 19ra bitartean eskainiko dute zerbitzua, astelehenetik barikura

umeei protagonismoa ematea; errespetua, elkartasuna eta ahalmen kritikoa sustatzea; eta aisialdian euskara sustatzea, besteak beste.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburu-etako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Arrike
Liburudondoa

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

Eubako jaiak elkargune eta frontoi berrituagaz hasiko dira

Aurreikusitako epea baino lau hile lehenago amaitu dituzte lanak

ZORNOTZA Joseba Derteano Pilotaleku eraberrituko lanak 2015. urte hasierarako amaitzea zegoen aurreikusita, baina lau hilabete gutxiago behar izan di-

tuzte, eta dena dago prest gaur jaiei hasiera emateko. Proiektu osoak 700.000 euroko aurrekontua izan du, eta Urre enpresak gauzatu du.

David Latxaga alkatearen esanetan, "esan daiteke hiru obra batean egin direla; pilotalekua eta horri atxikita dagoen elkargunea eraberritzea, eta,



Udal ordezkariak eguaztenez eman zuten azpiegitura eraberrituen berri.

ondoko zelaia parke erabilgarri bihurtzea, asialdirako gune berri bat ahalbidetuta".

Pilotalekuari dagokionez, hormak mantendu egin dituzte, eta teilatu kurbatu berri batez estali dute. Pilotalekua 1984an eraikitakoa baino baxuago geratu da, eta partiduak jarrita ikusteko 66 eserleku ditu. Gainera, kontraktaren zabalera 5,5 metro txikitu dute. Horrela, kanpoaldeko espaloiak zabaldu ahal izan dituzte; hala ere, pilotalekuko kontraktak zabala izaten jarraitzen du.

Atxikita dagoen eraikin eraberrituari dagokionez, Andoni Agirrebeitia Kultura, Euskara eta Kirol zinegotziak adierazi du "eubarren, inguruko auzoetako auzotarren eta, oro har, zornotzarren elkargune" izatea gura dutela. Gune berritua erabilgarri egongo da jubilatuen elkar-tearentzat, Eubako bizilagunen elkar-tearentzat zein bestelako ekitaldiren bat antolatu gura duen zornotzararentzat.

Behar izanez gero, gela handia bitan banatzeko aukera dago itxitura mugikor baten bidez; horrela, posible da aldi berean

batzar bat baino gehiago egitea. Gelak sarrera eta komun bi ditu, eta mahaiekin eta aulkiekin atonduta dago. Alde batean beirate handi bat du, barnealdeari argitasuna ematen diona.

Eraikineko espazioaren banaketa diseinatzerako orduan, Eubako bizilagunen elkarteagaz elkarlanean aritu direla aipatu du Agirrebeitia. Obren aurretik, hainbat gela zituen eraikinak, baina azken urteetan biltegi moduan erabiltzen zen. Berria diseinatzerako orduan funtzionaltasuna bilatu dute.

Jaiak barikutik domekara

Gaurtik astelehenera jaiak ospatuko dituzte Euban. Bihar, gaztetxoentzako zein nagusientzako herri bazkariak izango dira pilotalekuan. Iluntzea Xaibor DJaren erromeriak alaituko du. Domeka eguerdian herri kirol emanaldia egongo da, Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza aizkolariekin eta Urdax Magunazelaia eta Jon Gisasola harri-jasotzaileekin. 18:00etan, berriz, Zeanuriko antzerki taldeak *Zer ete darabil Tomasak?* antzezlan eskainiko du.

Txupinazoagaz hasiko dituzte gaur Izurtzako jaiak

Udaletxeko balkoitik botako dute jaiei hasiera emango dien txupinazioa, gaur, 20:00etan

IZURTZA J.D.

Gaur hasi eta irailaren 14ra bitartean jaiak ospatuko dituzte Izurtzan. Jaiei hasiera emateko, 20:00etan txupinazioa botako dute; ondoren, trikitalariek lagunduta, poteo herrikoian batuko dira izurtzarrak. Jaietako lehen eguna 23:00etatik aurrera Gaztelekuan egongo diren kontzertuek osatuko dute.

Ekitaldiz beteta dator asteburua ere: musika, txapelketak, bertsolariak... gustu eta kolore guztietako ekitaldiak egongo dira. Bihar, 12:00etan, bakailao txapelketa egingo dute; bakailoa bi erataraz prestatzeko modua egongo da: pil-pilean edo Bizkaiko erara. Ondoren, 15:00etatik aurrera, herri baz-

karian batuko dira. Zapatuko ekitaldiei, berriz, arratsaldeko 17:30ean hasiko den bingoak emango die amaiera.

Domekan, Santa Ageda ermitan batuko dira. Mezaren eta

Domekan, Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma bertsolarien saioa dago Santa Agedan

Mendigain dantza taldearen saioaren ostean, Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagoma bertsolarien txanda izango da. Azkeik, 19:00etan Lotxo taldeak erromeria eskainiko du.

Txakur arriskutsuak erroldatzeko aukera dago

GARAI Markel Onaindia

Udalak oharra zabaldu du herrian, arriskutsuak izan ahal diren txakurrak erroldatzeko gonbita eginez. Legearen arabera, horrelako txakurren jabe izateko lizentzia eduki behar da, eta hori eskuratzeko udaletxera jo beharko dute jabeek. Irailaren 30a da tramiteak egiteko azkeneko eguna.

Udal ordezkariak azaldu dutenez, hurrengo arraza hauetako txakurrak dira arriskutsuak: american pitbull terrier, staffordshire bull terrier, american staffordshire terrier, rottweiler, dogo argentinarra, fila brasildarra, tosa inu eta akita inu. Horrelako txakurrak dauzkatenek jo beharko dute udaletxera.

Kooperatiba bidezko etxe eredua landagunera zabalik

Interesatuentzako izen-ematea irekita dago

ATXONDO J.D.

Kooperatiba bidezko etxebizitzaren eredua auzoetara zabaltzeko saiakera egingo du udalak, eta interesatuentzako izen-ematea irekita dago irailaren 19ra arte udaletxean. Izen-ematea landaguneetako partzelak birkalifikatzeko interesa duten lur-jabeei zein lurzati horietan kooperatibazko bizileku proiektuan parte hartzeko interesa duten herritarrei zuzenduta dago.

Udalak Apatan sustatutako kooperatiba bidezko etxebizitzaren proiektua momentuz ez da gauzatuko, ez delako eskari nahikorik izan. Orain, berriz, landaguneetan saiaturako dira. Izan ere, etxebizitza premia badago, eta lur-jabeak ere bai. Auzoetako landaguneetako lurrek

baldintza batzuk bete beharko dituzte birkalifikatuak izateko. Ondoren, prozesuak aurrera jarraitzen badu, udalak interesatuen eta lur-jabeen arteko bitartekaritza egingo du. Gero, formula bat baino gehiago egon daitezke prozesua aurrera eramateko. Lur-jabeek euren lurzati kooperatibari saldu diezaioke, edo, bestela, etxebizitzetako bat euren jabetzan geratu daiteke, jabetza pribatu moduan. Uztailean batzar bana egin zuten Arrazolan eta Axpen gai hauei guztiei buruz berba egin zuten herritarrekin.

Landaguneetako etxebizitzek baserrien egitura izan beharko dute, eta bizileku bikoak zein gehiagokoak izan daitezke.

Astaldi eta suspertze soziokulturaleko


IKASTARROAK

> Matrikulazio epea irailaren 1etik 30era

IKASTARO LUZAK

- ASTIALDIKO BEGIRALEA / Durangon DOANI
- ASTIALDIKO ZUZENDARIA
- JENDARTE KULTUR DINAMIZATZAILEA
- HEZKIDETZAN ADITUA
- NOLA SUSTATU PARTE-HARTZEA?

- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ASTIALDIAN
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ETA SEXUALITATEA
- KULTURARTEKO HEZKUNTZAREN HASTAPENAK



IKASTARO LABURRAK

- Barreterapia
- Eraldaketarako hezkuntza eta kontsumo arduratsua
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Zer behar dute adimen gaitasun handiko pertsonak?
- Kontu-kontari bizitzaren hari
- Arteterapia, gorputza eta dantza adierazpena

Iurretako kanposantua hilerrien lehiaketa bateko finalista da

Heriotzari buruz jarduten duen aldizkari batek antolatu du lehiaketa



Hilerria zabaltzeko premiak eraginda egin zuten proiektu berria.

IURRETA Amaia Ugalde Duela lau urte Iurretako hilerria handitzeko diseinu bereziko proiektu bat egin zuten. Orain, berriz, saritua izan daiteke kanposantua. Heriotzaren inguruko gaietan espezializaturako *Adiós* aldizkariak Espainia mailako hilerrien lehiaketa antolatu du, eta hilerri onenaren kategorian laugarren postuan dago Iurretakoa. Irailaren amaierara arte dago botoa emateko aukera, www.revistaadios.es webgunean.

Uztailean ipini zuen abian

Hilerri onenaren kategorian laugarren dago; irailaren amaierara arte bozkatu daiteke

lehiaketa aldizkariak, eta gaur arte 561 boto jaso ditu Iurretako hilerriak. Aldizkarian udalek bidalitako proposamenak jaso zituzten, eta adituek hamar hilerri aukeratu zituzten lehiaketarako, tartean Iurretakoa.

Hiru kategoriatan banatzen da lehiaketa: kanposantu onenaren saria, monumentu arkitektoniko onenaren saria eta eskultura onenaren saria. Lehiaketa honen bitartez, hilerrietan dauden artelanei garrantzia aitortu gura izan die *Adiós* aldizkariak.

Iurretako hilerriaren diseinuari buruz Angel Basabe arkitektoak esan izan du "maite dugun norbaiten heriotzak eragiten digun hustasun sentsazioaren sinbolo" izan gura duela.

Nekazaritza eta artisautza azokan izen emateko epea hasi da

IURRETA A.U.

San Migel jaien antolaketa aurrera doa. Azken ikutuak ematen dabilta jai egitarauari, eta udalak, bere aldetik nekazaritza eta artisautza azokako izen-ematea hasi du. Irailaren 17ra arte egongo da aukera horretarako.

Jaien azken egunean, urriaren 5ean izango da azoka eguna. Iaz 32 postu egon ziren azokan, eta aurtan 30 eta 40 artean egongo direla kalkulatu dute. Stand kopurua mugatua dela azaldu dute, eta, kopuru jakin batetik gora aurkezten badira, nork parte hartuko duen antolatzaileek erabakiko dutela. Parte hartzeko baldintza nagusia erakusten eta saltzen diren produktuen egile edo artisau izatea da.

Postu onenaren lehiaketa

Aurtan ere azokako standen artean ikusgarrienak sarituko dituzte. Posturik onenak 100 euroko saria edukiko du, bigarrenak 75 eurokoa, eta hirugarrenak 50 eurokoa. Epaimahaia azokako antolatzaileek osatuko dute: Iurretako Udaleko, Bizkaiko Foru Aldundiko eta BBK-ko ordezkariak.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



Irailen udabarriko trumoi-hotsa

Heldu da jada iraila. Hilabete neketsua izaten ohi da langileentzat eta ikasleentzat, nahiz eta azken aspaldian epealdi beldurgarria ez izan azken horientzat, dagoeneko desagertuak baitira iraileko azterketa ikaragarriak. Oporraldia amaitzeak, askorentzat, tristura dakar; alabaina, lanera bueltatzea, egungo egoera ekonomikoari begira, ez da egitate makala, inondik inora be. Badagoz gure artean herritar, auzotar, lagun, senideak langabezian, edo euren lana kolokan ikusten dabena. Itxaropenari eutsita eguneroko iluna bizi dabena. Pertsona horiek guztiek gure iparrorratza osatu behar dabe, bai arlo politikoan, noski, baita gure eguneroko pertsonalean be.

Aurtengo irailak hasiera emon deutso ikasturte politiko bereziari, hain zuzen, datorren maiatzean izango ditugun foru eta udal hauteskunderen kanpainari. Hasiak dira alderdien arteko ika-mikak, eta trumoi-hotsak nabariak dira. Eta bistakoak dira batzuen aldarri hutsalak: eraginik ez daukan demagogia, azaleko proposamen zentzugabeak, "kasta" mantra behin eta berriz errepikatzen joera obsesibo-kompulsiboa (kuadrilla guztietan badagoz ba pare bat "kasta" jatorrak portzierto)...

Trumoi-hotsa gero eta zalapartatsua izango da udaberrira heldu ahala. Ez gaitez, bada, gor geratu. Badakigu nork egiten dabena zarata eta nork egiten dabena eguneroko lana. Gure iparra herritarren bizimodua hobetzean dago, gehienbat, egoerarik larrienean dagoenen egoera hobetzean, eta burrunbaren erdian be egingo dogu.

Ehiza baimenak lortzeko zozketa egingo dute

Irail eta urrirako zozketa hilaren 19an egingo dute

MAÑARIA Markel Onaindia Mugarra ateneo zinegetikoak udazkenerako ehiza baimenak zozkatuko ditu datozen asteetan. Saibigain-Iturriotz eta Bitañoko pase lerroak izango dituzte jokoan ehiztariek.

Irailerako eta urrirako baimenen zozketa hilaren 19an egingo dute, 20:00etan, Mañariko udaletzeko egoitza sozialean. Eskararak aurkezteko epea egun

horretan bertan amaituko da, 13:00etan. Bestalde, bazkideen zozketa hilaren 23an egingo dute, 19:00etan.

Azarorako baimena lortu gura dutenek irailaren 26a baino lehen eroan beharko dute eskaera: zozketa urriaren 3an egingo dute, 20:00etan. Bazkideen txanda urriaren 23an izango da, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Auzoetako farolak aldatuko dituzte energia aurrezteko

Jubiletzeko berokuntza sistema aldatuko dute

MALLABIA Jone Guenetxea Mallabiko Udalak auzoetako farolak aldatu, eta led argiak puntuz puntuko telekudeaketa-rekin jartzea erabaki du. Bide batez, Jubiletzeko argiak ere aldatuko ditu. Gainera, Jubiletzeko berokuntza sistema ere aldatu egingo du, elektrikitik gas naturalera. Proiektu honen helburua argiteria publikoaren energia eraginkortasuna

hobetzea dela azaldu du Mila Mondragon alkateak. Teknologia berri honekin argiteria publikoaren mantentze gastuak ere nabarmen jaitsiko direla dio udalak. 76.350 euro bideratuko dituzte proiektu honetara. Gastuaren %60 Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak finantzatuko du, Tokiko Agenda 21 egitarauaren barruan, eta gainerakoa udalak.

2013ko irabazlea

ALBERDI

HARATEGIA

DURANGO

Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel.: 946 817 658

Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak

Eskolarako materiala erosteko finantziarioa emango du udalak

Bonuek hamar euroko finantziarioa edukiko dute



Egitasmoak 2.200 ikasleri laguntzeko balio dezakeela uste dute.

DURANGO Markel Onaindia Durangoko familiek Eskola Txartela edukiko dute eskura lehenengo bider, eta, horrela, eskolarako materiala erosteko finantziarioa jasoko dute. Guztira, 1.200 bonu ipiniko ditu udalak familien esku, eta bakoitzak hamar euroko finantziarioa edukiko du. Hori bai, dendetan egin beharreko gastu minimoa hogeituroko da. Urriaren 31ra arte eskatu ahal dira bonuak Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo Dendak Bai elkartearen bulegoan. 3 eta 12 urteko umeak dauzkaten gurasoei zuzenduta dago laguntza.

Ikasturte hasiera honetan familien lagungarri izango da, be-

raz, Eskola Txartela. PSE-EEK prentsa ohar bidez adierazi du alderdiak bultzatuta garatu dela ekimena, eta Dendak Bai elkartearen ekarpena eskertu du.

Udalak 12.000 euro gorde ditu egitasmorako, eta 2.200 ikasleri laguntzeko balio dezakeela uste dute sozialistek. Eskolarako arropa eta materiala erosi ahalko da, baina testu libururik ez.

Ekimenaren helburuak

Pilar Ríos bozeramaileak prentsa ohar bidez azaldu duenez, "herriko dendetan salerosketa dinamizatzea eta familiei ikasturte hasieran laguntza txiki bat ematea" dira PSE-EEK ekimenaren helburuak.

Irailaren 11n, errepublikako irakasleak gogoan hartuta

1931-36 arteko eskoletan egindako lana oroitu dute

BERRIZ Amaia Ugalde

Espainiako Bigarren Errepublikara mugimendu berezia egon zen hezkuntza arloan, eskolak indartu, eta aldaketa pedagogikoak martxan jartzeke. Berrizen auzo eskolak sortu ziren, Elizondon, Olakueta, Sarriar eta Okangon. Orduko irakasleen lana eta diktadura jaso zuten errepresioa izango dute gogoan datorren eguean, irailaren 11n urtero egingo duten oroimen ekitaldian.

Berriz 1936 gogoratzen elkarrekin lanketa berezia egin du aurtun errepublikako eskolen

gainean. Elkarteko kideek azaldu dutenez, orduan planteatu ziren ideiek antz handia dute gaur egungo eskari batzuekin. Euskararen alde lan egiteko gogo ere nabaria zen.

Egueneko ekitaldia

Plazan 18:00etan egingo dute lore eskaintza. Gero, Kultur Etxean izango da ekitaldia, eta *Las maestras de la República* dokumentala proiektatuko dute. Garai hartako Berrizko eskolen argazkiekin erakusketa bat ere prestatu dute, etabi astez egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Leintz Gatzagan egun-pasa egiteko aukera, astelehenean

Goizeko 08:00etan ipini dute hitzordua, plazan

OTXANDIO J. Derteano.

Urteroko ohiturari eutsiz, irailaren 8an otxandiarrek urteroko bisita egingo diote Leintz Gatzagari. 08:00etan ipini dute hitzordua, Plaza Nagusian; 09:00etan ere irtengo da beste talde bat, tartean Otxandioko eskolako ikasleak. 08:00etan irteten direnek Dorletako Ama Birjinaren baselizan meza entzungo dute, eta, ostean, eguerdian ongietorria egingo diete gatzagarrek. Egunotan jaiak ospatzen dabilta. Urtero legez,

mahaia eta aulkiak prest izango dituzte bertan bazkaldu gura duenarentzat. Otxandioko eskolatik 9-11 urte arteko hemeretzi gazte joango dira oinez; Lehen Hezkuntzako ikasleak autobusez joango dira, eta gatzaren inguruko museoa bisitatuko dute.

Irailaren 8an Leintz Gatzagara joatea aspaldiko ohitura da. Antza denez, jaietarako musika bandarik ez zuen sasoiaren, Leintz Gatzagak Otxandioko bandari eskatzen zion joateko. Apurka ohitura bihurtu zen.

> DURANGALDEA ASTEON

IPadaren zozketa egin dute

EUSKARA Durangoko *Salerosketak be euskeraz* kanpainako zorbaki saritua 214.987 izan da, eta Macrosoft Ingen informatika dendan banatu da. Dendariekin hartu-emana euskaraz egitea saritzen du kanpainak, eta iPad elektronikoa irabazi du zorbaki saridunak. Ordezko zorbakia 212.173 da, eta Betteon arropa dendan eman da.

50 urteko kintoen jai Durangon

OSPAKIZUNA Aurtun 50 urte betetzen dituzten durangarrek kintoen jai ospatuko dute Durangon, irailaren 13an. Antolatzailerik azaldu dute hilaren 8a dela izena emateko azken eguna. Plateruena Kafe Antzokian izango dira afaria eta osteko jaiak. 685 772 609 telefonoan eskatu ahal da informazioa.

Txibitenako argiak konpondu dituzte

LANAK Durangoko Udalak Txibitena auzoko argiteria hobetzeko lanak garatu ditu azken hilabeteetan. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, farola batzuk indartu dituzte, eta berri batzuk ipini ere bai. Horrela, gau argitasun handiagoa egongo da eremu horretan. 5.500 euro inbertitu ditu udalak lanetan.

> Iritzia



Opor Txikiak

Gure denboretan oporrak hartu egiten ziran. Ume denboran oporrak eskolak amaitzen hartzen genduzan. Gaztetan beharrak uzten ebanean. Jubilaukeran dana da opor-denbora. Ez giñan oporretara joaten, *oporretara* toki izena balitz lez. Aurtun be hemendik ibili gara, auzo eta herri txikiak jaietako bitxiak poztuz. Adibide lez argazkiko jaiak. Abuztuaren 17an arratsalde Asteiko



jaiaren aker probak ikusteko aukera egoan. Aker bi protagonista eta haiekin batera talde bi akerrei tiraka. Akerrak Rogelio eta Rokefeler ziran, eta ondo portatu ziran. Irabazlea nesken taldea: Uritz, Aiora, Mirari eta Hiart. Eta gu be bai, barre, eupada eta txalo ugari egin gendulako. Epaileak be hautu-hautukoak gero!

Turismoa, garapen ekonomikorako faktorea Durangaldean

Jakin badakigu, behintzat Amankomunazgoaren gobernu erakundeetan gabiltzanok, turismoa lehen mailako jardura ekonomikoa dela, lana eta etekinak sorrarazten dituen munduko ekonomia guztietan. Durangaldeari dagokionez, turismoa erakartzeko potentzial nabarmena duela antzematen da; izan ere, kalitateko ostalaritza establezimendu eta hainbat baliabide daude bertan.

Erabat beharrezkoa da helarazi zaizkigun premiei erantzutea eta hainbat eragile, publiko zein pribatu, lantzen ari diren proposamenak aztertzea, Durangaldean turismoa planifikatu, koordinatu eta dinamizatuko duen erakunde baten laguntza funtsezkoa baita. Hala ere, gaur

egun ez daukagu turismo lankidetzarako erakunde hori, eskualdea turismo helmuga lehiakor bihurtzeko lana bere gain hartuko duena modu parte-hartzaile eta koordinatuan.

Gure ustez, turismo erakunde hori Durangoko Amankomunazgoa izan behar litzateke; dagoeneko badu ekonomia sustatzeko arlo bat, lan mahaia eratzea bertatik bultzatuko litzateke, eta eragile guztiek hartuko lukete parte, publikoek (udalari, elkarte publiko-pribatuek, esaterako Urkiola L.G.) zein pribatuek (ostalaritza, ostatuek, merkatariek), baita Gerediaga bezalako kultura elkarteek ere, eskualde mailako plan turistiko bat sortzeko eta linea estrategikoak biltzeko.

Oskar Zarrabeitia Asueta (Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren presidentea).

Iñaki Totorikaguena Sarrionandia (Iurretako Alkatea eta Amankomunazgoko Garapen Ekonomikoko Batzordearen presidentea)

Kristina Mardaras (Iurreta)



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Jon Arruabarrena | Psikologoa | Iurreta, 1961

“Ikasturte hasieran ikasleek aukera berriak dituzte, eta ez dute zertan aurreko akatsik errepikatu”

Ikasleen arazo nagusia motibazio falta izaten dela aspimarratu du Jon Arruabarrena psikologoa

> BERBAZ Jone Guenetxea Udako oporrak amaitzen ari dira. Egutegian irailari dagokion orrialdea jartzeko gutxi falta den honetan, ikasle eta guraso askok ikasturte berriari arduraz begiratzen diote. Jon Arruabarrena psikologoa ikasketa arazoak dituzten ikasleekin dihardu. Ikasketetan zailtasunak dituztenei ikasturteari aukera berri bat izango balitz bezala begiratzeko gomendatzen die. Gurasoei, berriz, irakasleekin harremana sendotzeko aholkatzen die. Aditu honen ustez, motibazio falta izaten da ikasle askoren arazoa.

Uda amaitzen dabil. Opor osteko sindromeari ikasleek zelan egin diezaioke aurre?

Ikasturtea apurka-apurka hasi beharra dago, egokitzapena ondo egiteko. Batzuek ikaskide edo irakasle berriak izaten dituzte, eta egoera berrira egokitu beharra dute. Hala ere, prozezu hori ezin da luzeegia izan. Batzuek beranduegi konturatzen dira ikasturte horretan zailtasunak dituztela.

Zer gomendio emango zenieke ikasleei eta gurasoei?

Ikasleei esango nieke ikasturte berri baten aurrean daudela. Zerotik hasten direnez, ez dituzte zertan aurreko akatsak errepikatu. Gurasoei dagokienez, irakasleenganako harremanak sendotzea komeni da.

Zer profiletako jendea etortzen da zure kontsultategira?

Ikasketetan emaitza aldetik arazoak dituztenak, eta, dena gainditu arren, ikastea kosta egiten zaienak zein ikasteko teknikak hobetu gura dituztenak.

Zein adinetakoak izaten dira?

DBHtik aurrera, 12 urtetik gora izaten dituzte. Irakurketa lantzen dugu gehien. Irakurketa mekanikoari baino ulermenari

ematen diogu garrantzia. Laburpen, eskema edo mapa kontzeptual bat egiten jakiteko 12 urtegar izaten den logika behar da. Txikiagoekin teknikak baino ohitura onak lantzen ditugu. Esate baterako, agenda bat erabiltzen irakasten diegu.

Zein da gehien lantzen duzuen arazoa?


Motibazio falta da gehien ikusten dudana arazoa. Ikasle onak oso motibatuta egoten dira, baina beste ikasle batzuk, aldiz, ez. Gaitasun batzuk izan arren, adimenari eta irakurmenari dagokionez, gasolina hori falta zaie. Motor ona izan dezakete, baina gasolina barik ez doaz inora. Kasu horretan gasolina motibazioa izaten da; gogo barik joaten dira klasera, aspertu egiten dira, eta besteei molestatzen diete.

Motibazio faltari zelan egin diezaiokegu aurre?

Eskatzen diet pentsa dezaten zertarako joaten garen eskolara.

“**Ikasleak barruko motibazioa izatea oso zaila da, beraz, kanpokoak izan behar du**

Denok dakigu etorkizunean bizimodu eroso bat eta soldata on bat ateratzeko izan daitekeela. Baina horri letra larriz idatzitako motibazioa deitzen diot. Beste motibazio bat, letra xehez idazten dena, eguneroko konstantzia da. Eguneroko ahalegina zelan irakasten da? Etxean zein gelan ahaleginaren balioa irakatsi behar zaie. Gainera, gazteek ez dute nagusien motibazio bera. Beraiek gustuko dituzten sariekin lortu daiteke motibazioa. Barruko motibazioa izatea oso



zaila da. Beraz, kanpoko motibazio bat izan dezake, gauza materialak zein immaterialak.

Zer arazo duen detektatzea, hau da, diagnostiko zehatza egitea zaila izaten da?

Informazioa hiru iturritatik eskuratzen dut. Lehenengo, irakasleengandik hartzen dut informazioa. Beste iturri bat gurasoena izaten da. Umeak zelako garapena izan duen, eta etxean agertu diren arazoak zeintzuk diren azaltzen dizkirate. Eta hirugarren iturria gaztea bera da.

Hurrengo pausoa zein izaten da?

Arazoa aztertu eta gero, tratamendua jartzen dugu, bai umeagaz, bai gurasoekin. Plangintza egiterakoan, ikasteko teknikak eta ohiturak daude. Ohitura horiek ez badira planifikatzen, gazteek ez badakite beraien astea edo hiruhilekoa planifikatzen,

“**Lehenengo pausoa agenda bat zer den jakitea eta erabiltzea da**

itxi egiten dute. Azterketaren aurreko astean hasten dira lanean, eta beharra pilatzen zaie. Lehenengo pausoa agenda bat zer den jakitea eta erabiltzea da. Egutegia batzuentzako gauza oso normala da, baina beste batzuek zirriborroak margotzeko erabiltzen dute.

Gazteek eskolaz kanpoko ekin-tza ugari izaten dituzte. Badute guztirako astirik?

Gazteak futbola edo beste ekin-tzaren bat badauka, ordu horiek

beteta dituela jakin behar du plangintza egiterakoan. Badaude ikasle onak eskolaz kanpokoak egin ditzaketenak eta denbora topatzen dutenak beraien etxeko lanak egiteko. Egin daiteke.

Etxeko lanen aldekoa al zara?

Etxeko lanen inguruan ez nago ez alde, ez kontra. Gelan ikasitako etxean errepasatu eta kontzeptuak finkatzeko bada, ondo deritzot. Baina etxeko lanak egiteko eskola partikularretara jotzei ez diot zentzu handirik ikusten.

Udan lanean jardun duen ikaslerik izango da.

Ikasturtean lanik egin ez duenak udan egin beharko du. Emaitzak alde batera utzita, ezberdina da ahaleginu denaren eta ahaleginik egin ez duenaren kasua. Ekainean ez duenak lanik egin uztailean egin beharko du.

Mariano Estudillo Dominguez | Durango, 1991 | Aktorea

“Gure lanbideari buruzko ikasbide itzela jaso dut obrako lankideengandik”

Héctor Alterio eta Lola Herrera aktoreekin lan egin du Estudillo durangarrak

> ANTZERKIA Itsaso Esteban ‘En el estanque dorado’ antzezlanean aktore lanetan ibili zara urtebetez. Zelako esperientzia izan da?

Luxu handia izan da lantalde horretan parte hartu izana, eta eskerrak eman nahi dizkiot proiektu horretarako aintzat hartu ninduen jendeari. Jesus Cimarro ermuarra (Durangoko Geroa antzerki taldeko kidea izandakoa) da antzezanaren produktorea, eta berak eskaini zidan aukera hau.

Héctor Alterio eta Lola Herrera antzezle entzutetsuak dira, eta euren ondoan jardun izana aukera ederra izango zen, ezta?

Ikaragarria izan da ia 24 orduz zinemako, telebistako eta antzerkiko legenda handi horiekin lan egitea. Lasaitasun itzela ematen du ikusteak bizi osoa

lan honetan ibili direnek ere entseguetan geuk dauzkagun zantzak dauzkatela; geuk bezala, galdetu, hanka sartu eta akatsak zuzentzen dituztela. Gure lanbideari buruzko ikasbide itzela jaso dut lankideengandik. Bizitzari buruz ere asko ikasi dut biran, eurekin trenean joanda, eurekin afalduta... Horretan genbiltzala, telebistako telesail batean parte hartzeko aukera sortu zitzaidan, eta euren ere aholkua eskatu nien erabakia hartu orduko.

‘En el estanque dorado’ antzezanaren aurkezpen biraren bigarren partean beste aktore bat dabil orain arte zeuk egin-dako papera egiten.

Bai, ekainetik aurrera Adrian Lamana aktoreak dihardu pertsonaia hori egiten. Asteon, esaterako, Bilbora bueltatuko da lantaldea, Campos Eliseos

antzekian obra eskaintzera. Iazko abuztutik ekainera arteko funtzioetan neuk jardun nuen ia urtebetez, eta Madrilen eman genituen hiru hilabeteetan antzeztu nuen pertsonaia.

Urte hasieran ere egon zineten Bilbon. Zelan gogoratzen dituzu emanaldi haiek?

Ikaragarria izan zen etxean, Arriagan, aritzea. Egon naizen antzokirik onena da Arriaga. Gainera, amaieran gurasoak, familia eta lagunak ikustea oso betegarria izan zen. Emanaldi horren ostean, gogoan dut Sevillako Lope de Vega eskaini genuela *En el estanque dorado*, eta familiaren beste parteak eduki nuela jesarlekuetatik txaloka. Ezin hobea izan zen!

Aste honetatik aurrera, berriz, ‘Vive cantando’ telesaillean ikusi ahalko zaitugu.

Haisieran lan biak egitea zen asmoa, baina erabaki bat hartu behar izan nuen. Itzela izan da *En el estanque dorado* egiteko aukera, baina *Vive cantando* orain arte eduki ez dudana aukera da: telebistan pertsonaia ona eta finkoa edukitzeko aukera. Nahiz eta lan bat eduki, gure lanbidean beti komeni da hautaprobak egiten jarraitzea, eta *Vive cantando* telesailerako probak egin, eta hartu egin ninduten.

Gogorra egin zitzaizun antzerkia utzi behar izana?

Antzerkian presente egoten jarraitzea zen arduratzen ninduen: ez nuen telebistagatik antzerkia alde batera utzi gura. Denboraldi honetarako beste antzerki obra batean parte hartzeko aukera daukadala jakiteak lasaitzen nau. *Las amistades peligrosas* antzezan garai-kidean musikari baten papera egiten dut: esaterako, saxoa, baxua, gitarra, bateria eta harmonika jotzen ditut obran.

Oso desberdinak dira antzokia, telebista eta zinema?

Lagunei esan ohi diedanez, antzerkia ezkontza baten modukoa da: hilabeteak eman behar



‘Vive cantando’ telesaillean agertzen da Estudillo.



‘Los iluminados’ obraren kartela.



‘Vive cantando’ telesailko irudi bat.



‘En el estanque dorado’ antzerki obrako une bat.

dituzu entseatzeko; ondoren, estreinaldia dator –ezkontza ospakizuna–; eta zortea badaukazu, urte asko egingo dituzu obra horregaz. Zinema, aldiz, udako maitasuna da: dirauen bitartean ez daukazu besterik buruan, baina badakizu iraila ailegatuko dena, eta amaitu egingo dena. Azkenik, gau bateko harremana da telebista; noizbait berriro topatzen baduzu, zure oroitzapen ona eduki dezan nahi izango duzu, eta gogoz saiatuko zara.

Hiru horietatik zein arlotan gura zenuke zure bidea egin?

Gaur egun, “nik hauxe egin nahi dut” esatea ezinezkoa da. Aukera daukazun horretan jardun behar duzu. Egia da nik antzerkia dudala gustukoan, eta bertan ikasten dela gehien. Telebistan, aldiz, gauza asko zure kontrolatik kanpo daudelako sentsazioa duzu. Zuk zure testua esan, eta hortik aurrera gertatzen denaren berri telebistan ematen dutenean izaten duzu. Antzerkian, oster, harreman zuzenagoa duzu lankideekin.

Zure adineko jendea ez da hurreratzen antzerkira. Zergatik? Oso zaila da nire adinekoak

antzerkira joatea, hemen ez dagoelako antzerki kulturarik. Londresen, Parisen eta New Yorken, eskaintzen dietena ikustera joaten dira herritarrak antzokira. Meridan, antzerki klasikoaren jaialdia egiten duten hirian, telebistako txutxumutxuak barik, Aristófanek eta Medea darabiltza jendeak kalean ahotan. Jaialdiari esker, udaro dute antzerkia, eta zaletu egiten dira. Baina apusturik egiten ez bada, jendea ez da joango. Antzerkiaren arrakastarik gura ez duten agintariak ere badaude, adierazpide librea delako, gauzak esan eta mezuak zabaldu ditzakezulako; horren kontra egiteko, adibidez, BEZa igotzen dute eta soldatak murrizten dituzte.

19 urtegaraz joan zinen Madriler: aktore lanetik bizitzeko beharrezko ikusi zenuen?

Joan beharra nuen, Euskal Herrian ez nuelako antzerkia indartzeko apusturik ikusten. Bilatzen nuena topatu dut Madrilen: eskolan neu bezala lan honetan aritzeko irrikaz dagoen jende mordoia ezagutu dut, eta antzerki maisu handiak ere bai: egon nahi dudana lekuan nago, eta nahi dudana egiten nabil!

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Neil Simon estatu batuarrak 1965ean idatziriko antzezlanaren interpretazio propioa dakar Txintxaun kolektiboak *La extraña pareja* antzezlanean. Bizitzaren gorabeherak apartamentu berean elkarrekin bizitzera bideratzen dituzten aspalidiko lagun biri buruzko istorioa da. Jack Lemmon eta Walter Matthau aktoreek egin zituzten ezagun pertsonaia bi horiek zinemari, eta Aitor Arestik eta Aitor Berriok antzeztu dituzte paper horiek moldaketa honetan.

Oscar eta Felix pertsonaia nagusien arteko harremana, eta astero etxean poker partidarako biltzen dituzten lagunekin duten hartu-eman dira antzezlanaren oinarria. Etxe horretan biltzen dira partida guztiak irabazten dituen despistatua, gizon fin eta dotorea, poker jokalaria on eta serioa, eta aldamenean bizi diren ahizpak, besteak beste.

Elkarrizketa bizkorreko eta muturreko komedia forman, gai unibertsalak jorratzen ditu *La extraña pareja* antzezlanak: bikote harreman gatazkatsuak eta bakardadea, esate baterako. Ivan Mestraitua aktorearen berbetan, “duela 40 urte bezala, hemendik ehun urtera ere gertukoak egingo zaizkigun egoerak kontatzen ditu obrak; astero pokerrera jokatzeko elkartzaren lagun talde honek bezala, guztiok ezagun ditugun arazoak eta horien soluzioak”.

Prozesu luzea

Apirilean zen Txintxaunen obra hau estreinatzekoa, baina Rosa Martínez-Alcocer zuzendaria gaixorik ipini zen, eta irailera atzeratu behar izan zuten lehenengo emanaldia. Heldu zaie unea: irailaren 12an eta 13an, 22:00etan egingo dituzte *La extraña pareja* obraren lehenengo bi emanaldiak, Berrizen.

“Obra erakusteko gogo itzelagaz” hasi dute ikasturtea taldekideek. Izan ere, bi urte “luze” joan dira ideiarri heldu, eta obra sortzen hasi zirenetik. Baina sorkuntza prozesua hainbeste luzatu izanak ekarri du onuririk ere: Aitor Aresti aktorearen berbetan, “segurtasuna irabaz-

‘La extraña pareja’ komedia aurkeztuko du Txintxaun kolektiboak taldeak Berrizen

Irailaren 12an eta 13an egingo dituzte obraren lehenengo bi emanaldiak



Lanari azken ukituak ematen ibili dira Txintxaun kolektibokoak asteon, Berrizko Kultur Etxean.

tea”. Aitor Pareja kideak gehitu duenez, “aktore gisa erronka berriei erantzuteko tresnak gartzeko eta esperimintatzeko modua” eman die prozesuak. Jose Manuel Pérez *Fore* aktore berriztarraren berbetan, *La extraña pareja*, “pertsonaiak lantzeko erari dagokionez, asko ikasteko bidea izan da, erronka handia izan da”. Izan ere, zuzendariak azaldu duenez, jatorrizko testuko pertsonaiak are muturrekoagoak egitea izan da helburua: “Lehenago sekula egin gabe geundena egin dugu obra honetarako: pertsonaien karakterizazioa asko landu dugu”. Zuzendariarentzako zein aktoreentzako erronka izan da horrela jardutea, “ez baita erraza interpretazioa hain muturrea eramatea”.

Txintxaun taldekoek argi dute esfortzu horrek guztiak merezi izan duela. Aroa Blanco taldekide gaztearen berbetan,

“askatasunean, jolasean, zabil-tzalako, finean”. Aitor Berrio berriztarrak ere azpimarratu du ideia hori: “Eguneroko estresa alboratu, eta beste norbait izatera jolastea lasaigarria da”. Guztien ustez, “magikoa” da eszena bat prestatzen zabiltzala denak funtzionatzen duela sentitzea, “gozagarria pertsonaia zeurea egiten duzula ohartzea”.



Antzezlanaren aurkezten duen kartela.


Lanari azken ukituak ematen ibili da asteon, arratsaldero-arratsaldero, Txintxaun kolektiboak: Jose Manuel Pérez, Raul Pérez, Aitor Pareja, Aroa Blanco, Lurdes Sánchez, Ivan Mestraitua, Aitor Berrio eta Aitor Aresti aktoreak; Pedro Rueda musikaren arduraduna; eta Rosa Martínez-Alcocer zuzendaria. Taldean urteak daramatzaten hainbat lagunek eta Txintxaun kolektiboak eskaintzen duen tailerlean antzerkiera hurreratutako lagunek dihardute *La extraña pareja* obran. Denek ere bistakoa dute estreinaldiari begirako ilusioa eta urduritasuna.

Harrera beroa egin zioten Berrizko ikusleek 2011. urte amaieran Txintxaun kolektiboak bertan aurkeztu zuen *Full Monty* antzezlanari. Irailaren 12ko eta 13ko emanaldietan ere publikoa barre egiten eta ondo pasatzen ikustea da gura dutena.

GEURE DURANGALDEA

Jon Ander Urkiaga Egidazu

Kazetaria



Etxea

Aterpea. Heriotzak. Ohea. Atzerria. Udak. Adostasuna. Benito Lertxundi. Defendituko dut, edo ez. Esandakoak. Ohera, lo zaude. Zinena. Errieta. Bigarren solairua. Ongi etorri. Gertutasuna. Musu bat. Alokairua. Dragoi bola. Urruntasuna. Eskerrik asko. Noiz?

Sosegua. Sofa. *Teo zirkuan*. Sukaldea. Gorrotoa. Zahartzarora. Bakea. Babesa. Haur zineneko hartz txikitxoak. Ihesa. Esan bakoak. Irria. Laugarren pisua. Oihuak. Anpuluak. Igan-de arratsaldeak. Ukazioa. Gerra. Sehaska kantak. Eztabaidak. Adostasuna. Zarena. Lasaitasuna. Altzariak. Oinordetza. Aitaren etxea. Pantxoa eta Peio. Idazmahaiak. Ibaizabal. 1+1=2.

Etorri nahi duzunean. Amets gaiztoak. Maitasuna. Eskerrak zuri. Neurri berean maitatuko dut. Udazkena. Bederatzigarren solairua. Nerabearoa. Horma zuriak. Jaiotza. Garaipenak. Hipoteka. Euskara. Belatxikietak. Komuna. Iragana. Amarena. Esan nahi ez, eta esandakoak. Nora? Metro karratu gutxi bazueta jolas daiteke ezkutaketa? Bai.

Gotelea. Haurtzarora. Mugarra. Heldutasuna oraindik ez, mesedez! Izango zarena. Negua. Anboto. Txirri, Mirri eta Txiribiton. Hirugarren pisua. 1+1=2, beti? Ez. Altzari gaineko hautsa. Legoak. *Goenkale*. Desadostasunak. Besarkada bat, bi, hiru. Gaztaroa. Berandu. Astelehen goizak. Esan nahi, eta esan bakoak. Altzari barruko altxorrak. Playmobilak. Izango zinatekeen?

Onarpena. Urduritasuna. *Tupperrak*. Argazkiak. Ez, zuri. Azterketen bezperako arrosarioak. Oraina. Hobeto joan. Norekin? Mantak. Esku pilota finalak. Irratia. Porrotak. Aterpea. Etxea.

Irailean denboraldi BERRIA

San Agustin KULTUR GUNEAK
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

IRAILAK 18 - 19:00etan DOAN KANTULAGUNEI... LEHEN KANTU BAT
Ikasturte hasierako zita AURKEZPENA

IRAILAK 25 - 19:00etan DOAN AINHOA ETXAIDEREKIN HIZKETAN
LAB sindikatuko idazkari nagusia aurrez aurre ELKARRIZKETA

IRAILAK 26 - 22:30ean 6/7 euro
MOBY DICK eta LOU TOPET MUSIKA KONZERTUA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4A 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu **deitu!**

946 217 902

EDERTASUN GIDA

Azala zaindu, uda ostean

Eguzkia da azala zahartzearen kausa ohikoena.

Adituek diotenez, udako eguzkia da azala zahartzea eragiten duen kausa garrantzitsuena. Udan, eguzkitan ordu asko egoteko ohitura dago, eta horrek kalteak sor ditzake azalean. Adibidez, orbanak sortzea ere ekarri dezake. Zer esanik ez: prebentzioa da lehenengo soluzioa. Horregatik, eguzkia hartzeraz joan baino ordu erdi lehenago eman behar da azala babesteko krema.

Azalerako tratamenduak.

Azala kaltetuz gero, badaude uda ostean egin ahal diren tratamenduak. Komenigarria izango da astean behin azala esfoliatzea, eta hidratatzeko beharra ere badago. Hainbat terapia daude, mesoterapia, esaterako. Etxean azala bere onera ekartzeko kremak ematea ez da sobera egongo.

Barne hidratazioa.

Bestalde, gorputz barneko hidratazioa garrantzitsua da. Ur eta zuku ugari edatea gomendatzen dute adituek, eta baita dieta orekatu bat garatzea ere, fruta eta barazki asko batzen dituen.



ILE APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

irailaren 3tik 30era 27,50€

%50eko deskontua
Hidratazio aurpegi-tratamenduan:

PEELING-A, ANPOILA HIDRATATZAILEA, MASAJE ERLAXATZAILEA ETA MASKARA.

Goienkale 16-1.esk • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Disko berriko kantak eta kanta zaharragoak tartekatuko ditu Elorrioko Pixontxis taldeak gaurko kontzertuan.

Herriko hiru talderen zuzenekoak gozagai Elorrioko Ferixa Nausikoetan

'Gogoz astindu' disko berriko kantak aurkeztuko ditu Pixontxis taldeak gaur, txosnaguneko kontzertuan

> MUSIKA Itsaso Esteban Elorrioko Arriola kultur aretoko lokaletan entseatzen duten hiru talde gonbidatu dituzte Elorrioko Ferixa Nausiko jailetan aritzera: Pixontxis, Iheskide, eta Han. Pixontxis taldeak gaur bertan eskainiko du kontzertua, eta datorren asteburuan ariko dira Iheskide eta Han.

Zortzi kanta biltzen dituen *Gogoz astindu* diskoa labetik atera berri, herriko jaietako txosnaguneko kontzertua eskainiko du Pixontxisek. Gaur, 23:00etatik aurrera ariko da txosnaguneko. Taldekideek aurreratu dutenez, disko berriko kantak, maketako zenbait abesti, eta gerora sortutako kantaren batzuk ere joko dituzte. Tartean, esan dutenez, zuzenean lehenengoz joko duten bat ere bai.

Zortzi kanta biltzen dituen 'Gogoz astindu' diskoa labetik atera berri ariko da Pixontxis, Elorrion

Gogotsu daude herriko jaietako emanaldi horri begira Pixontxiseko taldekideak, nahiz eta horrelako leku batean joteak tentsioa ugaritzen duela ere aitortu duten. Duela sei urte taldea sortu zutenean hartu zuten bidetik, punk-rocka oinarri hartuta jarraitzen dute, eta disko berriaren ere nabaria da betidanik gogoko izan dituzten Brigada Criminal, Oliba Gorriak, Iheskide, Deskontrol, Ramones, edota Rancid taldeen eragina.

Taldekideen berbetan, disko berriko kantetan melodia oso landuak eta soinu distortsionatuak dira nagusi, eta letrak, aldiz, euskal gatazkaren eta egungo gizarte ustelduaren inguruko letra ironikoak direla azaldu dute musikari gazteek.

Hamabost urtegar, lagunartean eta instrumenturik jotzen jakin barik sortu zuten Pixontxis. Gaur egun, Liher Larrañagak gitarran eta ahotsan, Paul Urigoitiak gitarran eta koruetan, Julen Hernandok baxuan eta koruetan eta Lander Amorrortuk baterian osatzen dute Elorrioko taldea.

Taldekideen esanetan, lan handia eta denbora luzea eman dute disko berria prestatzen. Lagun musikari eta herrikide baten laguntza izan dute: Iheskideko Xagurena, hain zuzen. "Asko lagundu digu diskoaren

soinua definitzen", azpimarratu dute Pixontxisekoek. Hain justu, Iheskidek ere kontzertua eskainiko du Ferixa Nausikoetan, datorren asteburuan.

Hamarkada bat, Iheskide

Ihesbide izenagaz kantak sortzen hasi zirela hamarkada bete dela ospatzeko, bira bereziaren erdian daude Iheskide taldekoak. Beste bateria-jotzaile batzuekin ekin zioten uztailean *Borrokak darrai* disko berriaren aurkezpen birari: "Hamar urtez gurekin ibili eta gero kide batek taldea uzten duenean une zaila izaten da, baina orain, trantsizio fase zailaren ostean, oso gustura gabiltza", adierazi du Gaizka Jaureño taldekideak.

Sei kontzertu eskaini dituzte uda honetan Kruders taldean ere aritzen den bateria-jotzaile berriagaz, eta irailaren 13an,

23:00etan, Elorrioko txosnaguneko joko dute.

Euren herriko kontzertu horretan disko berriko hainbat kanta eta aurreko diskoetakoak tartekatuko asmoa daukatela aurreratu du Iheskideko kideak. Sarritan jo dute bertan, "baina Elorrion jotzea beti da berezia", azpimarratu du. "Beti saiatzen gara herriari begira zerbait ezberdina egiten". Gogoratu du, duela zazpi urte inguru jo zutela euren herriko jaietan txosnagu-



Bateria-jotzaile berriagaz dabil Iheskide uztailetik.

neko oholtzatik lehenengoz, Soziedad Alkoholikaren aurretik, hain zuzen: "Handi egiten zitzaigun eszenatokia bera, eta gure herrian aritzea oso berezia zen. Nerbio itzelak pasatu genituen".

Lehenengoz etxean

Han taldea lehenengoz ariko da, irailaren 12an, herrikideen aurrean. Elorrioko gaztetxean joko du laukoteak, 23:00etan. Han izeneko proiektu berriagaz Elorrion jotzen duten lehenengo aldia izango da Haneko lau musikarientzat. Baina Non Demontre, Mokaua, Ama Say, Tunnel483 eta Las Ratas taldeetan aritutakoak dira duela bi urte Han sortu zuten Karlos Gomez eta Gorka Molero, eta laukotea osatzeko batu zitzaizkien Nere Lersundi eta Miguel León.

Baxua, gitarra, bateria eta Nere Lersundiren ahotsa elkarrekin dira Han izeneko proiektuan, besteak beste, "zuzenekoetan ondo pasatzea" helburu hartuta. Nahasketa horretatik sortu dute hainbat estilotako hamar abestiko errepertorioa.

Sortzen duten musikaren ezaugarri nabarmenena zein den galdetuta, eurena "musika biribila" dela erantzun dute taldekideek. Bestalde, kantuetako letrei dagokienez, zelako gaiei buruz idatzi sekula ez dutela "oso argi" eduki, baina emaitza "kantupuin ulerterrazak" direla diote.

Durangeldeko Ghetto taldeagaz Berrizko gaztetxean eskaini zuten lehenengo kontzertua. Elorrioko emanaldiaren ostean, Oñatiko jaietan, irailaren 27an, eta Tolosan eta Durangon, urrian, lotu dituzte zuzenekoak hitzorduak Han taldekoek.



Irailaren 12an, lehenengoz ariko dira Han taldekoak euren herrian.



Julen Ardanza | Sokatiralaria | Abadiño, 1988

“Ikurrina podiumean beste banderen altuera berean ikustea itzela izan da”

Julen Ardanzak Euskal Herria ordezkatu du Munduko Sokatira Txapelketan, Wisconsinen; domina bi ekarri ditu AEBetatik

> SOKATIRA Markel Onaindia Ofizialtasuna lortuta, euskal selekzioak beste nazioen parte hartu du Munduko Sokatira Txapelketan, Wisconsinen (AEB). Julen Ardanza abadiñarra izan da gure ordezkarietako bat, eta hunkituta itzuli da etxera. 600 kiloko txapelketan parte hartu, eta brontzea lortu du; podiumera igo dute ikurrina. Gainera, klub arteko txapelketa ere jokatu da, eta Laukizko (Bizkaia) Gaztedi taldekoekin urrea irabazi du. Domina bi eskuetan dauzkala agertu da elkarrizketara. Txabi Ardanza aitaren pausoei jarraituta hasi zen sokatiran.

Zorionak Julen. Zer sentitu zenuen irabaztean?

Mila gauza etorri zitzaizkidan burura. Urte osoko entrenamenduak momentuan bertan doaz, tiraldian. Amaitzean negarrari eman nion. Poztasun handia izan da guretzat, eta esperientzia oso polita izan da.

Zelan etorri zaizu Munduko Txapelketara joateko aukera?

Hamahiru urte gaz hartu nuen lehenengoz soka. Zazpi urtean edo ibili ostean, utzita eduki dut. Orain langabezia nago, eta aitak aholkatu zidan berriro sokatiran hasteko, pisua bajatzeko aitzakia ere bazela eta. Astiro-astiro hasi nintzen berriro. Goma gaineko denboraldia Abadiñogaz egin nuen, eta Laukizko Gaztedikoekin ea lur gainean eurekin tiratzen hasiko ote nintzen esan zidaten. Aukera eman didate, eta zortea egon da.

Gaztedigaz parte hartu duzu, baina ‘Basque Country’-ren izenean ere bai...

Euskal Herri mailan irabazten duen taldeak gero selekzio mailan lehiatzeko aukera dauka. Talde osoak hartu dezake parte, eta, gainera, kanpokoekin indartu daiteke. Gure kasuan, Gaztedik tiratu du selekzioaren izenean. Sokatira bat eginda praktikatzeko kirol bat denez, batera entrenatzea komeni da.

Eta aurten hori izan da nobedade handiena. Euskal Herria ordezkatzeko, gustura?

Motibazio handia izan da. Urte



“**Urte piloa egon gara horren alde borrokan, eta azkenean lortu dugu”**

piloa egon gara borrokan horren alde, eta azkenean lortu dugu. Ikurrina podiumean beste banderen altuera berean ikustea itzela izan da.

Zelan joan ziren lehiak?

Klub mailan hamaika ginen, eta denok denon kontra egitea tokatu zitzaigun. Talderik indartsuenak ilaran tokatu zitzaizkigun. Finalerdietara bidean beste maila batekoak egokitu zitzaizkigun. Pentsatu baino errazagoa izan zen, baita finala bera ere. Nazio mailan, berriz, maila handi-handia zegoen. Tiraldi oso gogorak izan ziren. Finalerdietan Herbehereen kontra justu-justuan galdu genituen tiraldi biak. Gero [hirugarren eta laugarren

postua zeuden jokoan], Ingaltarraren kontra lehenengo tiraldia luzatu egin genuen, eta besteak nahiko erraz etorri ziren.

Euskal Herriaz gainera, kanpoko selekzioek ere fama dute. Herbehereak, Suitza, Suedia... Talde oso gogorak dira lur gainean. Gehienbat, tiralditik ateratzera joaten dira; gure jokoa, ostera, eustea izaten da, tiraldia luzatu, eta nekatzen direnean ekarri.

Zein selekziok harritu zaitu?

Nesketan, adibidez, Txina Taipei. Unibertsitariok bakarrik tiratzen dute. Han diru-laguntza handiak dauzkate. Asteko bost egunetan entrenatzen dute, eta *makina* batzuk dira, *robot* batzuk. Guztiek bat eginda tiratzen dute. Harrigarria da ikusteko.

Espero zenuen noizbait munduko txapeldun geratzea?

Inork ez du ezer erregalatzen. Entrenatu behar izaten da. Sekulako babesa eduki dut bai ai-

“**Nazio mailan euskal selekzioagaz domina bat lortzea oso polita izan da”**

taren, bai Abadiño taldearen partetik; eta Gaztediren laguntza ere eduki dut. Asko irakatsi didate, eta norbere esfortzuak ere lagundu du. Egia esanda, domina bakar batez ere oso pozik egongo nintzateke.

Munduko txapelduna zara. Hortik gorago ezin joan...

Bai. Beti joan ahal da aurrerago. Nazio mailan urrea lortu behar, ikurrina goian ipintzeko eta eraserkia entzuteko.

Non gordeko dituzu dominak?

Ez dakit. Aitak bitrina bat egin da dauka etxean, irabazi dituen domina guztiekin. Beharbada, nik ere hasi beharko dut horrelako zer edo zer egiten [barrez].

Zenbat bider begiratu diezu dominei?

Askotan! [Barrez]. Urrezkoak poztasun handia eman dit, baina nazio mailan euskal selekzioagaz domina bat lortzea oso polita izan da. Bi domina lortu dira nazio mailan, eta lau klubetan.

Wisconsinen izan da. Turismoa egiteko ere hartuko zenuen tarte, ezta?

Bai. Astelehen goizean ailegatu ginen hara. Chicagon egon ginen egun bi, eta turismo apur bat egin genuen. Zortea eduki genuen, oso esperientzia polita izan zen eta. Gero Madisonera jaitsi ginen; eguaztenean pisu neurketa izan genuen, eta eguean hasi zen lehia.

Orain, zer erronka daukazu?

Denboraldi bi egin ditut aurten, goma gainekoa eta lur gainekoa. Oso nekatuta nago, eta, beraz, momentuz atsedean hartuko dut. Gero zer gertatuko den denborak esango du.

Koikiliren omenezko futbol partidua jokatuko dute bihar, Otxandion

Koikili eta bere lagunak Vulcano taldearen aurka arituko dira



Azken denboraldietan Mirandes taldean jokatu du Koikili Lertxundik. Aitor Ibarrola.

> FUTBOLA Joseba Derteano Koikili Lertxundi futbol jokalaria otxandiarrak futbol profesionala uztea erabaki zuen joan zen denboraldiaren amaieran. Ibilbide luze horretan bidelagun izan ditu Otxandioko Koikili lagunarteko kideak, eta, omenaldi moduan, lagunarteko partidu bat antolatu dute biharko: Koikiliren Lagunak taldea Vulcano futbol taldearen aurka.

12:00etan jokatuko da partidu hori, bihar, Otxandioko Zelaieta futbol zelaian. Bere ibilbidean ezagutu dituen 22 jokalarik osatuko dute Koikiliren Lagunak taldea; taldearen erdiak lehen zatian jokatuko du, eta beste erdiak bigarrean; Koikilik partidu osoa jokatuko du. Athleticoko jokalaria ohi asko batuko dira Koikiliren taldean: Luis Prieto, Aitor Larrazabal, Igor Gabilon-

do, Joseba Etxeberria, Iñigo Velez eta Iñigo Diaz de Cerio.

Aurrez aurre denboraldi-aurrean dagoen Otxandioko Vulcano taldea izango dute. Koikilik urtebete eman zuen Vulcanoren gazteen taldean, kadete adina zuela: 14 urte gaz. Ondoren, Gasteizko Aurrera Vitoria taldera joan zen bere anaia Xabier Lertxundigaz eta Jokin Lozares atezainagaz batera. Hirurek har-

tu-eman estua izan dute futbolletik kanpo ere. Borroka libre praktikatu zuten elkarrekin, eta hirurak Espainiako txapelkide izanak dira. Koikilik taldekide izango du bihar Xabi anaia -zelai erdian arituko da-. Lozares, berriz, atezain lanetan arituko da Vulcano taldean; sorbaldako lesio bategatik borroka libre eta futbola utzita ditu, baina ez du hutsik egingo partidura.

Athleticen zein Mirandesen emandako urteetan herritarren partetik sentitutako berotasuna "eskertu" gura du Koikilik: "Babes handia sentitu dut. Otxandioren zatitza ere pozgarria izan da herriko futbol jokalaria bat hor goian aritzea. Poztasuna eta esker ona bi norabidetako izan dela uste dut", adierazi du Koikili Lertxundik.

Hilabete bi joan dira futbola utziko zuela iragarri zuenetik, eta ez du damurik: "Nik kirola beti ulertu dut barne motibazio moduan. Kirol guztiak praktikatzea gustatu izan zait. Orain beste kirol batzuk lantzeko astia dut; mendiko bizikletan, esaterako, asko gozatzen nabil".

Aterpetxe berria Otxandion Koikilik aurreratu duenez, Itzarrri taldearen bidez, urriaren hasieran, aterpetxe bat irekiko du Otxandion, Artekale kalean. 32 lagunentzako tokia izango du. Aterpetxean, ostatuaz gainera, kirolari, atsedinari zein euskarari lotutako zerbitzuak eskainiko dituzte.

ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto futbola

Epaileak

Areto futboleko txapelketa nazionala hankamotz hasiko da beste behin, Hirugarren Mailako hamahiru taldeekin eta Euskal Ligako beste hamahirurekin. Izan ere, talde askok kategoria horietan jokatzeari uko egin behar izaten diote, eskakizun ekonomikoek eraginda.

Iaz, Hirugarren Mailan 235 euro ordaintzen ziren arbitraje bakoitzagatik. Argi dago epaile barik ez dagoela lehiatzerik; lagunarteko partiduetan ere eztabaidatzen amaitzen da, hamar jokalaritzen direlako epaile lanetan. Beraz, epaileak behar ditugu, eta ez dut uste kobratzen dutena gehiegizkoa denik, gaur egun asko exijitzen zaielako, batez ere Nazional Mailakoei: proba fisikoak, kontrolak, azterketak, bidaiak eta kantxetan sufritzen duten presio handia.

Areto futboleko epaileak ez du korrika askorik egin behar ondo kokatuta egoteko, baina oso adi eta kontzentratuta egon behar du partidu osoan, espazio txikian jokatzen delako, erritmo bizian, etengabeko defentsa-erako trantsizioekin, blokeekin eta aldatetekin.

Hogeitun urte baino gehiagoan hamaikako futbol txapelketetan epaile federatua izan ostean, azken hamazazpi urteetan areto futboleko lagunarteko hainbat partidutan epaile lanak egin izan ditut. Biak alderatuta, ez dut inongo dudarik: askoz gaitzagoa da bosteko futboleko arbitratzea. Abantaila bakarra da korrika gutxiago egin behar dela, eta... euria egin ez gero, ez zarela bustitzen.

* Erredakzioan itzulia

Miguel Bilbao, Zornotzako atletismoaren 'aita', hil da

82 urte gaz hil da Zornotza Kirol Taldearen sortzailea

> ATLETISMOA

Joan zen zapatuan hil zen Miguel Bilbao, 82 urte zituela. Zornotzan atletismoa sustatzen ia bizitza osoan egindako lana zenbatesina da. Zornotza Kirol Taldearen eta Zornotzako Nazioarteko Krosaren sortzailea eta sustatzailea izan zen. Nazioarteko krosak 60. aldian egin du aurtan. Horretaz gainera, 1993an Munduko Kros Txapel-

keta Zornotzan jokatu izana bere lanaren ondorio izan zen. Jauregibarria parkeko kros ibilbidea berak diseinatu zuen, eta, harrezkero, prestigio handiko txapelketak hartu ditu: "Hori guztia ezinezkoa izango litzateke Miguelen adorerik eta lanik gabe. Euskal atletismoaren izenean eskerrak eman gura dizkiogu", adierazi du Euskadiko Atletismo Federazioak.

Guadalajarako triatloia irabazi du Gurutze Fradesek

Bizikletan eta korrika oinarritu zuen garaipena

> TRIATLOIA

Gurutze Frades iurretarrak (MugarraTT) Guadalajara Hiria triatloia irabazi zuen joan zen asteburuan. Igeriketa saiotik seigarren tokian irten ostean, bizikleta saioan lehenengo jartzea lortu zuen, apurka-apurka aurkariak aurreratuta. Ibilbide osoan zehar izan zuten bero handiari (35 gradu) ondo egin zion aurre. Bizikleta gai-

nean berea izan zen denborarik onena.

Korrikako tarte ia batera hasi zuten Fradesek eta Dolca Olle triatletak, baina iurretarrak jarritako erritmoa biziegia izan zen kataluniarrentzat. Helmugan 2.31ko aldea aterazion. Helena Herrero osatu zuen podiuma, korrika egin beharreko ibilbidean denborarik onena osatu ostean.



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
- DBHko graduatua

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide proba
- Goi zikloetarako sarbide proba
- Informatika
- Ingelesa (hasiera maila)

Beste jarduera batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

Matrikula egiteko ordutegia:
Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-12:00



MATRIKULA ZAITEZ

946 814 253

www.epadurango.hezkuntza.net



IRAILAREN 1etik 15era



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaiobarnizatuak.com



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatutak eta abar

Goietia, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991



LOREZAINNTZA

Jardines Patxi Lokategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk PATXI
48200 DURANGO 696 463 085



ITURGINTZA

urtiaga

Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea 3 • Tel.: 946 814 474 • Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga@urtiaga.info • MATIENA-ABADIÑO

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza


188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net



**Profesional onenak
zure zerbitzura!**

Durangaldeko hainbat lagun boluntario lanetan ibili dira Munduko Txapelketan

Atzo arte Munduko Saskibaloitxo Txapelketako hainbat partidu jokatu dituzte Barakaldoko BECen; 300 boluntario, tartean Durangaldekoak, gogor aritu dira lanean azken aste bietan, dena ondo irten zedin



Durangaldeko hainbat boluntario Barakaldoko BEC erakustazokan; irudien erdian, Inaxio Mendibe.

> SASKIBALOIA J. Derteano Munduko Saskibaloitxo Txapelketak atzo amaitu zuen bere bidea Bilbon. Azken bi asteotan C multzoko partiduak jokatu dira Barakaldoko (Bizkaia) BEC erakustazokan; esaterako, Ameriketako Estatu Batuak talde indartsuaren partiduak. Maila horretako txapelketak antolaketan lan handia eskatzen du, eta, profesionaleraino gainera, 300 boluntario ibili dira laguntzen, horietako hainbat Durangaldekoak.

Boluntarioetako bat Inaxio Mendibe izan da, Tabirako Baque taldeko presidenteordea. Boluntarioek askotariko eginkizunetan jardun dute: estatistikak jasotzen, aldageletako materia-

len arduradun, eta kantxan sortzen diren beharrezkoak asetzen, adibidez. Mendibe aldageletako

“Autobusean heltzen zirenetik joaten ziren arte jokalariek eroso sentitzea zen nire lana”

zereginetan ibili da, eta hurretik ikusi ditu talde guztietako jokalariek: “Gure lana jokalariei behar zuten guztian laguntzea izan da. Lehenengo, aldageletan ezer ez zedila falta bermatzen genuen: toallak, ur beroa...” Ondoren, autobusetatik jaisten zire-

netik kantxaraten ziren arte jokalarien inguruan ibiltzen ziren, unean uneko eskakizunei aurre egiteko: “Jokalariek une oro eroso sentitzea zen gure lana”.

AEBetako jokalariek erakarri dute arreta handiena zaleen zein boluntarioen artean. Jokalariek bertatik bertara ikusteko zortea izan dute, baina, oro har, hartu emanik gabe: “Jokalariek ez gaitzala deseroso sentiarazi eskatu ziguten. Han geunden guztiok jokalariei argazki edo autografo bana eskatzen hasiz gero, hori zoramen!”.

Bilbon eta Barakaldon txapelketako sei herrialde aritu dira lehian, eta finlandiarrek ipinitako giroa azpimarratu du

Mendibek: “Barakaldo Hiria elkargunea guztiz bete dute. Batzuek galdetu didate ea Mungian

“Finlandiarrek Barakaldo Hiria elkargunea bete dute, eta partiduetako giroa ikusgarria izan da”

(Bizkaia) txapelketako partidurik jokatuko zen, finlandiar asko ikusi zituztelako bertan. Turismoa egiteko aprobetxatuko zuten seguruenik. Baina asko etorri dira. Egunotan kantxan ipini duten giroa ere ikusgarria izan da”.

Mikel Bizkarra Zegaman irabazle eta Kantabriar onenen artean

> TXIRRINDULARITZA

Mikel Bizkarra mañariarrak (Gomur taldea) oso errendimendu ona eskaini du azken egunetan. Lehenengo, joan zen domekan Zegamako (Gipuzkoa) San Bartolome saria irabazi zuen. Barbari mendateko azken igoeran eraso jo, eta aurkariei ateratako segundoak bakarrik heltzeko. Beste behin, aldapan gora dituen dohainak erakutsi zituen. Astelehenean eta martitzenean, aldiz, Kantabriako Itzulian aritu zen, eta, talde osoak bezala, maila handia erakutsi zuen. Gomurrek irabazi zuen taldekako sailkapena. Gainera, hiru txirrindulari lehen hamarren artean sailkatu ziren; Bizkarrak zortzigarren amaitu zuen. Imanol Estebez (Ziraun) izan da irabazlea.

Ariznabarreta durangarrak Guadalupeko Igoera irabazi du

> MENDI LASTERKETA

Oier Ariznabarreta durangarrak 38. Guadalupeko Igoera irabazi zuen joan zen zapatuan. Mulite (Hondarribia, Gipuzkoa) inguruko biribilgunean eraso jo, alde egin, eta bakarrik helmugaratu zuen. Bigarren tokian sailkatu zen Ander Sagarzazu hurreratu egin zitzaion azken txanpan, baina azkenean 50 bat metroko aldeagaz irabazi zuen Ariznabarretak. Emakumeetan Izaro Rubio ordiziarrak irabazi zuen. 370 korrikalarik hartu zuten parte.

Padel txapelketa hasiko dute Durangon

> PADELA

Irailaren 12tik urriaren 19ra III. Padel Txapelketa jokatuko dute Durangoko padel azpiegiturretan. Lau kategoria egongo dira aukeran: gizonena (maila bitan banatuta), emakumeena, mistoa eta haur-kategoriakoa. Izen-ematea irailaren 9ra arte egin daiteke Landakoko igerilekuan: asteleheneetik barikura 17:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan 09:00etatik 14:00etara. Izen-ematea 15 euro da laguneko, eta 20 euro kategoria bitan izena emanez gero. Haur kategoriako izen-ematea 5 euro da.

Kulturalak futbol eskola sortu du gaztetxoentzat

2005-2008 artean jaiotakoei zuzenduta dago

> FUTBOLA

Durangoko Kulturalak 2005. eta 2008. urteen artean jaiotako gaztetxoei bideratutako futbol eskola eskainiko du urriaren 6tik 2015eko ekainera. Eskolak astelehenean izango dira, eta ordu bi daude aukeran: 17:00etatik 18:15era eta 18:15etik 19:30era.

Futbolaren oinarriak irakasteaz gainera, kirolerako zaletasuna sustatzea eta gaztetxoentzat artean balioak (errespetua eta adeitasuna, esaterako) lantzea ditu helburu.


Futbol eskolak 60 gaztetxorentzako tokiak izango du lehen

urte honetan. Matrikulak 70 euro balio du (izena ematen dutenek Kulturalaren arropa jasoko dute opari), eta hileroko kuota 25 euro da. Hamabi plaza beharrezkoan dauden familientzat gorde dituzte, eta “%20ko deskontua izango dute”, Eneko Erdoiza Kulturalako harrobiaren arduradunak adierazi duenez. Beste hamabi plaza neskentzat gorde dituzte. Kasu bi horietan irailaren 15ean amaituko da izena emateko epea (eskola@culturaldurango.org). Gainerakoek urriaren 1a dute izena emateko azken eguna.



Iazko gaztetxoentzat kanpuseko irudi bat. Durangoko Kulturala.

anboto
komunikabideak 



Argazkia: Lehor Elorriaga

DURANGALDEA IRUDITAN ARGAZKI LEHIAKETA

Durangaldeko hamahiru herritako argazkiak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehen.

Argazkirik onena aurkezten duenak 500 euroko saria lortuko du.

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean.

astekaria@anboto.org | 946 816 558

ANBOTO astekaria | Bixente Kapanaga, 9 | 48215 Iurreta

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Irailaren 6an, 23:00etan,
Elorriko gaztetxean

Las Ratas + Kalibre 11

1990eko hamarkadan Tenerifen (Kanariak) sorturiko Las Ratas taldea ariko da Elorriko jaietako lehenengo asteburuan, gaztetxean. Rap, rock, funk eta metal doinuen nahasketa eskainiko dute kanariarrek kontzertu horretan. Bihar, 23:00etatik aurrera izango dira entzungai Las Ratas eta Kalibre 11.



Jaiak

:: ELORRIO

IRAILAREN 5ean

Egun osoan, **Aukeren Azoka**, elizpean.

19:00etan, **pilota partiduak**, plazako pilotalekuan. **Gazte Eguna txosnagunean: tailerrak eta herri bazkaria.** 23:00etan, **Pixontxis eta South Central**, txosnagunean. 00:00etan, **gau elektronikoa**, gaztetxean.

IRAILAREN 6an

Irailaren 6an, goizez eta arratsaldean, **futbola Elizalden.** 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, **haur parkea.** 18:45ean; **bits jaia**, pilotalekuan. 19:00etan, **Ai Ene erromeria**, plazan. 20:00etan, **txupinazoa eta pregoia**, plazan. 20:05ean, **bits jaia, Ai Ene erromeria**, plazan.

20:30ean, **Mariatxi internacional**, kalejiran. 23:00etan, **danborrada**, plazan. **Bad Sound System**, txosnagunean, eta **Las Ratas + Kalibre 11**, gaztetxean. 00:20an, **suzko zezena**, plazan. 00:30ean, **Mariatxi internacional**, Urarkan. 02:00etan, **Summum Art**, txosnagunean.

IRAILAREN 7an

10:00etan, **azoka**, Feriagunean. **Goizean, txistulariekin kalejira.** 13:00etan, **M'Lomp elkartekoekin kalejira.** 18:00etan, **esku pilota partiduak**, Hilario Azkarate pilotalekuan. 19:00etan, **umeen danborrada**, plazan. 20:00etan, **Orquestra London**, plazan. 20:00etan, **antzerkia**, txosnagunean. 22:00etan, **suzko zezena**, eta, 22:15ean, **Orquestra London**, plazan.

:: IZURTZA

IRAILAREN 5ean

16:00etan, **frontenis txapelketa.** 20:00etan, **txupinazoa eta triki-poteoa.** 23:00etan, **konzertuak eta DJak**, gaztelekuan.

IRAILAREN 6an

12:00etan, **bakailao lehiaketa.** 13:30ean, **enkartelada**, plazan. 14:30ean, **bakailao lapikoen aurkezpena.** 15:00etan, **bazkaria.** 17:30ean, **bingoa.**

IRAILAREN 7an

10:00etan, **Jaizalarekin kalejira.** 11:00etan, **meza, Santa Ageda** basilizian. 12:00etan, **Mendigain dantza taldea.** 13:00etan, **bertso saioa Iratxe Ibarra, Oihana Bartra eta Erika Lagomagaz.** 14:30etan, **herri bazkaria.** 16:00etan, **Tor magoa.** 17:00etan, **apustu herrikoa.** 19:00etan, **Lotxo taldea.**

:: ZORNOTZA (Euba)

IRAILAREN 5ean

11:00etan, **puzgarriak.** 20:30ean, **mus txapelketa.**

IRAILAREN 6an

11:30ean, **umeen jolasak.** 13:30ean, **umeentzako bazkaria.** 15:00etan, **nagusientzako bazkaria.** 17:00etan, **Xaibor DJa.** 20:30ean, **Label.** 22:00etan, **Xaibor DJa.**

IRAILAREN 7an

12:00etan, **meza,** 18:30ean, **'Zer ete darabil Tomasak?' antzezlan.**



Antzerkia

:: BERRIZ

IRAILAREN 12an eta 13an

22:00etan, **'La extraña pareja'**, Kultur Etxean.



Lehiaketa

:: DURANGALDEA

Azaroaren 22ra arte aurkeztu daitezke lanak **Juan Ramon de Iturriza mikroistorio lehiaketara.** (www.gerediaga.com).



Ikastaroa

:: ELORRIO

Urritik ekainera egingo duten **eskulanen ikastaroan eman daiteke izena,** Iturri kultur etxean.



Musika

:: DURANGO

IRAILAREN 18an

19:00etan, **Kantulagunei... lehen kantu bat: Kantulagunen ikasturte berrirako aurkezpena,** Plateruenean.



Dantza

:: ELORRIO

IRAILAREN 12an

21:00etan, **Errusiako Ballet Kosako Nazionalaren 'Miguel Stroggof, El correo del Zar'**, Arriolan.



Omenaldia

:: BERRIZ

IRAILAREN 11n

18:00etan, **1936ko estatu kolpe faxistari aurre egitearren hildako berriztarren omenez dantzariak, bertsolariak eta lore eskaintza,** Felipe Urtiaga plazan. **Jarraian, 'Las maestras de la República' dokumentala,** Kultur Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Libranos del mal

Zuzendaria: Scott Derrickson

- barikua 5: 19:00/22:00
- zapatua 6: 19:30/22:30
- domeka 7: 19:00
- astelehena 8: 18:30/21:00
- martitzena 9: 20:00

La abeja Maya

- zapatua 6: 17:00
- domeka 7: 16:45

2. ARETOA Hércules 3D

Zuzendaria: Renny Harlin

- barikua 5: 20:00
- zapatua 6: 19:30/22:30
- domeka 7: 19:30
- astelehena 8: 18:30

Hércules 2D

Zuzendaria: Tom Fernández

- barikua 5: 22:00
- zapatua 6: 22:30
- domeka 7: 21:30
- astelehena 8: 21:00
- martitzena 9: 20:00

La abeja Maya

- barikua 5: 18:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

El niño

Zuzendaria: Daniel Monzón

- barikua 5: 20:15
- zapatua 6: 19:30/22:30
- domeka 7: 20:00
- astelehena 8: 20:15

Campanilla: Hadas y Piratas

- zapatua 6: 17:00
- domeka 7: 17:00

IRAILEKO AGENDA

14	IURRETAKO EMAKUMEEN BIRA 11:00 Bizkaiko txirindularitza eskolen arteko lasterketa IURRETAKO KOFRADIEN EGUNA Laixiar zelaian
15	HAURREN IRAKURKETA KLUBA Herri Bibliotekan 17:00 (8-14 urte) Aurkezpena
17	ODOL EMATEA TXONPOLO ELKARTEA - IURRETA 16:30 - 21:00 Odol ematea
18	IURRETAKO UDALA 9:00 Iurretako kaleko azoka ANDEREBIDE IBARRETXE KULTUR ETXEA 18:30 Bideoforuma
19	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA SAN MIGEL JAIK 18:00 Pirritx eta Porrotx 'Bizipoza' Olaburu pilotalekuan Sarrerak: Ibarretxe kultur etxean
20	AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA SAN MIGEL JAIK Argazki Rallya online Iurretako jaiak ZALDAI MENDI TALDEA Iurretako V. Mendi Martxa Informazio gehiago: Tel.: 626 740 969 · www.zaldaimenditaldea.org OIABURU PILOTA K.E. 20:00 Profesionalen pilota partiduak
21	BIDEZABAL ATLETISMO TALDEA 10:00 XXXIV. Iurretako Hiri Froga

Denborapasak

ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguziteneko 14:00ak arteko epea

1

		9	4	8	
4	6	5	2		
2		8	3		5
	2	4	6	9	
	9		1		
3	4	6		5	
5		2	3		1
		6	7	4	3
8	7	1			



> Zorionak **Etxahun!** Dagoeneko etxeko txikiak 3 urte bete ditu. Mosu handi bat etxekoan partez.



> Zorionak **Danel** zure lehenengo urtebetetzien etxekuen partez!



> Abuztuaren 30ean urtetxo bat ein eban **Natali Cebrían Iriandok**. Zorionak familia guztixen partez! Muak!



> Zapatuen **Itzalek** bere lehenengo urtebetetzie ospatuko dau. Zorionak eta mosu handi-handi bat etxekuen partez.

2

4	9			6	
	6	7	2	9	
	8	4		7	
5		8	2		4
	2		9		1
7		1	4		9
	2		7	3	
		9	6	4	7
	3			5	6



> Zorionak txapeldun zure 5. urtebetetzian! Etxeko guztien partez muxu enorme bat eta segi horrela!



> Prezioxa! Irailak 4n 19 urtekin batera herriko jaixei hasiera edarra emongotsezu. Ta lasai Bartzelonan be nahikua leku eukizu ta hurrengo Fuente Pakoko karrera preparatzeko.



> Irailaren 6an **Karmelo Iriandoren** urtebeteze eguna da. Zorionak etxeko danan partez aittite!



> Gure **Maddik** 6 urte bete ditu. "Zorionak zure urtebetetzian..."! Aitxitzak eta amamak Garaitik.



> **Anek** irailaren 4an 2 urtetxo egin zituen, zorionak etxekoan partez!



> **Jose** eta **Florita**, 50 urte elkarrekin eta beti gazte! Ondo pasa irailaren 6an familia guztiaren partez. Muxu handi bat Arene, Martin eta Juneren partez.

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383

> Zorionak **Miren Odriozola!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

BOTIKAK

BARIKUA, 5 - 09:00-09:00

- **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)

ZAPATUA, 6 - 09:00-09:00

- **Irigoién** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 09:00-13:30
- **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
- **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
- **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
- **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
- **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
- **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)

DOMEKA, 7 - 09:00-09:00

- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Lopez de Aretxaga** (Torresolo 4 - Abadiño)

ASTELEHENA, 8 - 09:00-09:00

- **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
- **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

MARTITZENA, 9 - 09:00-09:00

- **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
- **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

EGUAZTENA, 10 - 09:00-09:00

- **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
- **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
- **Egaña** (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

EGUENA, 11 - 09:00-09:00

- **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

GARRAIOAK

Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

TAXIAK

Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **94 681 10 01**
Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
Iurreta **94 620 15 65**
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

UDALAK

Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
Iurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **943 17 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **945 45 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

UDALTZAINGOA

Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
Iurreta **94 620 08 88**

16° **24°** ZAPATUA

16° **25°** DOMEKA

15° **26°** ASTELEHENA

16° **28°** MARTITZENA

SUDOKUEN SOLUZIOAK

7

9	5	1	4	2	8	3	7	6
2	7	4	9	3	6	8	5	1
8	3	6	7	1	5	2	4	9
6	8	2	5	4	1	9	3	7
7	1	5	3	6	9	4	2	8
4	9	3	2	8	7	6	1	5
3	6	7	1	9	4	5	8	2
1	4	8	6	5	2	7	9	3
5	2	6	8	7	3	1	6	4

8

9	2	5	4	1	6	7	8	3
3	4	8	7	5	9	2	1	6
1	7	6	8	3	2	9	4	5
8	5	2	6	9	7	4	3	1
4	3	1	5	2	8	6	7	9
7	6	9	1	4	3	5	2	8
5	9	7	3	8	4	1	6	2
6	1	3	2	7	5	8	9	4
2	8	4	9	6	1	3	5	7

1

“Feria eta danborrada ekitaldi bereziak dira Ferixa Nausikoetan”

Jaietako saltsa guztietan sartuta dabil Lazkano; gazteenek, baina, ez dute bere DJ bizitza ezagutu



> AKUILUA Jone Guenetxea Dena dago gertu Ferixa Nausikoetarako. Iturizoro elkarteartean ere dena du prest Jose Ramon Lazkano, danborradako kideei afaria emateko. Indarrak hartu beharra dago bi aste irautesen duten jaietara aurreratu egiteko.

Jaietarako prest?

Bai. Baina azken momentuan beti falta izaten da zer edo zer, eta arineketan hasten gara.

Jaietan zer duzu gustuko?

Feria bera gustuko dut. Gainera, 1983. urtean Valentín Altaberi eta bioiazokaberreskuratzea bururatu zitzaigun, beraz, berezia da. Urte horretan abereena bakarrik izan zen. Danborrada ere berezia da, sorreran ibili nintzelako. Orain danborradako 120 parte-hartzaileen artean afaria prestatzen ari zuten naiz.

Danborradan parte hartzen zenuenean, zein paper zenuen?

Napoleon zuzendaria izan naiz. Baina, behin, mendian zer edo zerk ziztatu zidan,

eta, infekzio baten ondorioz, hankak handitu zitzaizkidan. Hamar-hamabi egun egin nituen ospitalean. Orduan alkatua Jose Mari [Fernandez de Arroiabe] zen, eta bisitan etorri zitzaidan. Esan nion horrela ezingo nituela bota luzeak jantzi. Udaletxeko balkoitik ikusi behar izan nuen danborrada.

Sukalki Egunean antolatzaile lanetan ibiltzen zara.

Iturizoro elkarteartean antolatzen du ekitaldi hori. Eguraldiaren arabera arrakasta izaten du, baina 2.000 lagun inguru batzen gara Aldatekuan. 110-120 kazola aurkezten dituzte.

Hainbeste parte-hartzailearen artean irabazlea aukeratzea ez da erraza izango.

Hamabi lagun inguruk osatzen dute epaimahaia. Sukaldari izandakoak, elkarteak eta EHUKo sukaldaritzako irakasleak izaten dira. Normalean, ea dena ondo eginda dagoen eta ea dena jangarria den begiratzen dute. Dekorazioa badu ere, dena jangarria izan behar da. Beraz, dena puntuan dagoen ikusten dute.

Elkarte gastronomikoen tradizio handia dute Elorrian.

Bai, eta elkarteak batzen dituen Iturizoro elkarteartea ere badugu. Bost elkarte gara. Lau hirigunean gaude, eta bosgarrena Gazetakoa da. Ekintza sozialak eta kulturalak antolatzeko batzen gara elkarteartean. Batek, programazio propioa dugu, eta, bestetik, kolaborazioak egiten ditugu udalagaz eta beste elkarte batzuekin.

Gastronomia alde batera utzita, urte askoan, musika arloan, DJ ezaguna izan zara Duran-galdean.

Jolasleku diskoteka zuk ez zenuen ezagutuko, baina bere sasoiaren estatuko onenetakoa zela esaten zuten. Hiru etapa izan zituen. Hasieran, ikuskizunak eskaintzen ziren. Gero, jantzia zabaldu zuten. Eta ezkontzak ere egiten ziren. 200-300 ezkontzatan jarriko nuen musika.

Zelan gogoratzen dituzu urte haiek?

Nik Jolaslekuren urte onenak bizi izan nituen, 1970ean hasi nintzelako bertan lanean, 2.000. urtera arte. Artista onenak pasatu ziren bertatik.

Zein talde joaten ziren?

Sasoi hartan ezagunak zirenak: Los Bravos, Los Canarios, Moceadas, Cristina, Janet, Machin, Los Tres Sudamericanos...

Kontzerturen bat bereziki gogoratzen duzu?

Gogoan dut Kubako talde bat aste osorako etorri zela. Hamasei inguru ziren, eta puruekin ibili ziren herrian. Bestetik, inauguraziora Los Canarios taldea etorri zen, eta zarata itzela atera zuten. Jendea ohitu barik zegoen bolumen horretara.

Zelan aukeratzen zenuen musika?

Ordu erdi bat musika dantzagarria izaten zen, eta gero *agarrau* eran dantza egiteko musika. Neskak dantzan egitera atera gura izaten zituzten, eta zerbait huts egiten bazuen, Jose Ramonena zen errua.

LAUHORTZA

JUANITO GALLASTEGI

Abadea



Zoroetxe? Zoroherri? Zoromundu?

Nik uste nuen, eta orain ere uste dut, gizon-emakumeen, taldeen, estatuen, herrien... artean berezkoa, normala, gizakiari dagokiona, batak besteari begirunea izatea dela. Baina, antza denez, aurtengo udan okerra ere okerra izan da nire eta zuon guztien iritzia.

Berezkoa, bidezkoa... Gorrotoa izatea, bestea izutzea, umeak, emakumeak, zibilak eta guda-riak hiltzea, bizilekuak apurtzea, hiriak hondatzea, besteena kiskaltzea, negar eragitea, etsipena sortzea, bizipoza ezabatzea... Jakina ba! Baldintza bat ez badot, behartuta nago horretara. Hainbeste kostatuko eta hain makala den su-etena dugu baldintza hori.

Zelan egongo naiz, ba, katutxoa banaiz, lehoiari zirrik egin barik, nahiz eta gero horrek nire herrikideentzako zer dakarren jakin? Baina su-etnik ezak behar-tzen nau! Eta lehoi guztiz ahaltsua naizenez, zelan egongo naiz ba sarraskirik egin barik, ambulanziaz erasotu barik, eskola eta ospitaleak bonbardatu barik, alargun eta umezurtz mordoa egin barik, eskuetan su-eten sakratua ez badut? Ezin dut! Ezinezkoa zait! Beharrezkoa dut, ezinbestekoa dut, bizi nadin gura ez duen katutxoari ahal den kalterik handiena egitea! Noraino heldu garen! Salbuespen bihurtu da bakean bizi izatea, etenbako su-etena izatea. Egunerokoa, normala bihurtu da sua eta garra, eta giza-zapaltzea, besteak eta besteena hondatzea...

Horrelakorik! Udako amets txarra, baina ez lotan izandako ametsa, jazotakoa eta gertatutakoa dugulako. Sinestu ete daiteke gizakien artean horrelakorik izan daitekenik XXI. mende honetan? Sinesgaitza izan arren, egia dugu, tamalez. Zoroetxe? Zoromundua? Eta beste guztiok, ahalmena duenak eta ahalmenik ez dugunok, zer?



EGYRANGA S.L.
PINU-EGUR SALEROSKETA
COMPRA-VENTA DE MADERA DE PINO

ZUBIALDE, S. A.
-ren hornitzaileak

Ander Lejarazu Marina
Tel.: 616 650 284